



3 Elkarrizketa: M^a Isabel Lastiri

Behi eta ardi gasna egiten topatu dugu Urdazubiko Etxelekuako etxeoandrea. Etxean betidanik izan dute gasna egiteko ohitura, baina duela 7 edo 8 urte arte ez ziren saltzen hasi. Makina berriekin egunean 58 gasna egiten dituzte. Noizbait eginkatu badute ere, ez dituzte gasnak lehiaketetan aurkezten, «asti aunitz behar delako horretarako».



6 Iritzia: Aspe-Asegarre

Bi enpresen arteko norgehiagokak kalte edo mesede eginen dio pilotari? Pilotari baten, pilota-zale baten eta korredore baten iritzia.

24-27 Kultura: Eskual Herriko Titiriteroen II. Topaketa asteburu huntan Zugarramurdin

Herrian Kilimiliklik taldea sortu zuten Mikel eta Estefaren oroienez antolatuta du ekitaldi hau Kizulabe elkarteak.

28 Kirolak: Sarako Izarra rugbi taldea

Sei urtertarik hasita hainbat kirolari mugiarazten du *basurdeen* taldeak Saran.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!

Guttitu sikikoeak aitzinera eramaten duten lantegi berexia

Industrian, lorexaintzan, obra ttikietan eta arraultze salmentan aritzen dira Poskoneako langileak

1981ean Baztango ANFAS-ek Enplegu Zentru Berexia sortu zuen Elizondoko Berro auzoko Poskonea base-rrian, honela, Hezkuntza Berexiko gelari segida emanaz. Geroztik, hainbat guttitu sikiko aritu dira lanean lantegi honetan. Gaur egun, 30 langile aritu dira. Lantegi berexia, doike, xede nagusia

persona hauek gizarte eta lan munduan integratzea baita. Baina gainerako enpresa guzietan bezala, produktuen kalitatea, prezioen kompetitibitatea eta bertze baldintzak behar dituzte. Aurtun, adibidez, *Ufesarendako* 60.000 termo-haizagailu egin behar dituzte. Asteotan lantegia erakusten ari dira. Salvador Sobrino zuzendariak dioen bezala, «*kanpoko jendeak, enpresak, senideak... hemen zer gauzak egiteko gai diren ikustea arras baliagarria izanen da*».

63 08 00
ALZAGA
 eskola

KANTONBERRI, 2 - BEHEA - BERA - (Ieben Artieda)

Zure ordutegira egokitzen gara

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritzea

S. SEMPER

Makineria

Ergoien Auzoa
 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
 Tel. eta Faxa: (943) 49 06 19



Landini Erantzun ziorra



DATUAK.....

❖ Urdazubi eta Zugarramurdi arteko errepidean kokatua da Etxelekua baserria.

❖ Etxean betidanik izan dute behi eta ardi gasna egiteko ohitura, baina duela 7 edo 8 urte saltzen hastea erabaki zuten.

❖ Senar-emazteez gain, alaba zaharrena ere aritzen da gasnak egiten, eta seme-alaba ttikienek ere laguntzen dute, eskolatik etortzen direlarik.

❖ Noizbait eginkatu badute ere, ez dituzte euren gasnak lehiaketetan-eta aurkezten, «asti aunitz behar delako horretarako».

✎ **M^a Isabel LASTIRI** Urdazubiko gasnagilea

“Denbora frexkoarekin gasna hobeki ateratzen zen haizegoarekin baino”

URTEKO ZE SASOIAN HASTEN ZARETE GASNAK EGITEN?

Joan den urtean ez ginen gelditu egitetik, baina aurtun egon gara hilabete pare bat saldu gabe. Ardiak nola umatzen diren, horren arabera izaten da gasna egiteko denboraldia.

NONDIK BILTZEN DUZUE GASNA EGITEKO ESNEA?

Gure ardiak ditugu eta etxeko esnearekin egiten dugu gasna.

ARDI-GASNA BAKARRIK EGITEN DUZUE?

Ez, behi-gasna, gaztanbera eta zenberena ere egiten dugu guk. Gasna egin eta gero gelditzen den gazura egosteko puntuan eman eta orduan ateratzen da zenberena.

URTE BATZUTATIK HONAT HAINBAT BALDINTZA BETE BEHAR DA GASNA SALDU NAHI BADUZU.

Bai. Lehen egiten zen gasna ez da berdin, gero sanidadea sartu zigutenean prestatu behar izan genuen, makina berri batzuk sartu, kamarak ere bai. Guri ez digute pega haundirik jarri, badakigu zertu bete behar den, eta pixka bat arabera hortan ibiliz geroztik...

Lehen ere saltzen genuen bentetara-eta, baina ia ez zuten nahi etiketarik gabe.

► *“Makina berriekin 58 gasna egiten ditugu egunean, behiarenak baldin badira, eta ardiarenak baldin badira gehiago.”*



«Orain eguraldiarena ez da batere nabaritzen, hozkailuak ditugulako».

ORAIN ERE BENTATAN SALTZEN SEGITZEN DUZUE?

Bai. Dantxarineako bentatan hamabortzean behin egiten dugu errepartoa. Gero bertako jendeak erosten digu gasna, eta iparraldeko jendeak ere aunitz. Asite Santuan eta uda aldean, berriz, goitu egiten da salmenta.

ZUEK BETIDANIK EGIN

IZAN DUZUE GASNA ETXEAN. ZERTAN ALDATU DA GASNA EGITEKO MODUA AZKEN URTEETAN?

Lehen ontzi batzuetan egiten genituen gasnak, bakarka, orain bertze era batera egiten da, ontzi haundi batera bota esne dena batean eta gasna aunitz egiten da elkarrekin. Ezberdina da. Makina berriekin 58 gasna egiten ditugu egunean, behiarenak baldin badira, eta ardiarenak baldin badira gehiago.

BASERRIETAN, BERRIZ,

POLIKI-POLIKI GALTZEN ARI OMEN DA GASNA EGITEKO OHITURA?

Hala diote, bai, ez dela lehen bezainbertze gasnarik egiten. Klima ere aldatu denez, gasna produkzioan nabaritzen da hori. Lehenagoko hoztarekin hobeki ateratzen ziren gasnak. Esnea arras delikatua da eta denbora frexkoarekin gasna hobeki ateratzen zen haizegoa eta denbora zakarrarekin baino. Orain ez dugu hori batere nabaritzen, hozkailuak ditugulako.

«POSKONEA»

Guttitu sikikoek aitzinera eramaten duten lantegia

Lantegi berezia da Elizondoko Poskonea. 30 lagun ari dira lanean eta horietatik 21 guttitu sikikoak dira, 3 guttitu fisikoak eta gainerakoak profesionalak. Helburu nagusia, pertsona hauek lan munduan eta gizartean integratzea da, baina edozein lantegik bete beharreko baldintzak atzendu gabe (produktuen kalitatea, prezioen konpetibitatea...). Iaz 53 milioi pezetako fakturazioa izan zuen Poskoneak, TASUBINSAk Nafarroan dituen hamar lantegien artean ttikienetakoa eta bereziena den honek.

TESTUA : AITOR AROZENA ARGAZKIAK : KARMELE TOLOSA

Lau lan arlotan banatzen dira Tasubinsa-Poskoneako langileak. Gehienak industria arloan ari dira, Poskonean bertan. Enplegu Zentru Berezi-ko hameka lagun, Okupazio Zentruko bortzak eta bi profesional egun osoz eta bertzea egun erdiz. Hemen enpresa ezberdinendako produktuak egiten dituzte. Aurten, adibidez, Ufesarentzat 60.000 termobentiladore egin behar di-

tuzte. Salvador Sobrinoren erranetan, «Tasubinsako bertze lantegi guzietan baino kalitate emaitza hobekak ditugu. Lan berri bat jartzen zaienean, igual bizpahiru hilabete kostako zaie prozesua ikastea eta fakturazioan ere jautsiera nabari da. Baina behin ikasiz gero, ez dute akats bakar bat ere onartzen. Langile 'normal' bat zigarra piztu eta azken futbol partidua zolasean arituko litzateke, baina hemen buru-belarri berean aritzen dira». Halere, neurri honetako produkzioa egin behar izateak tentsioa sortzen duela onartzen du. «Fabrikak berak ezartzen du lan martxa eta, zenbaitzutan, ailegatu ezinean gaudenean, estuasunak sortzen dizkigu, baina hori edozein lantegitan gertatzen da». ISO 9002 kalitate araua bete nahian dabilta. «Honek lan aunitz eskatzen du, baina kalitate eta zehaztasun arau batzuetara egokitzen gara erran nahi du» dio Juanjo Otermin monitorea.

Lorezaintza arloan zortzi lagun ari dira, bi profesional eta Enplegu Zentru Berezi-ko sei lagun. Baztango herri guzietan lorategiak zaintzen dituzte eta Baztan-Bidasoako erre-pide bazter eta atsedan lekuen txukuntzeaz arduratzen dira. «Beti ere, diru eskaintza aurkeztu eta gainerako enpresekin lehiatu behar dugu». Normalean ez dute sail batetik bertzerara aldatu nahi izaten. «Industria arloan gehienak neskak dira eta arras

	O.Z. ⁽¹⁾	E.Z.B. ⁽²⁾	Profes.	Guz.
Industria arloa	5	11	2 1/2	18 1/2
Lorezaintza arloa		6	2	8
Obra ttikiak		2	1	3
Arrautzearen kom.			1/2	1/2
GUZIRA	5	19	6	30

⁽¹⁾ Okupazio Zentruan lanerako zailtasun handiak dutenak ari dira, ikasten.

⁽²⁾ Enplegu Zentru Bereziaren soldata eta Aseguru Sozialarekin ari dira lanean.

Langileen jatorria

Sunbilla	1
Doneztebe	3
Narbarte	1
Irurita	2
Ziga	1
Lekaroz	2
Elizondo	9
Arizkun	2
Erratzu	2
Zugarramurdi.1	



gustora egoten dira lantegian, irratia adituz, batez ere eurria ari duenean, bero-gailuaren ondoan... Ez zaie kanpora ateratzea sobera gustatzen. Lorezaintzan, aldiz, gehienak mutiak dira, baserri giroan hazitakoak eta gustokoa dute kanpora ateratzea, zenbaitzutan bertze lantegietako langileekin bazkaltzea... Horrek ere integratu egiten du. Hiri bateko mutil bat lorezaintzan sartzea gehiago gostako litzateke» Sobrinok dioenaren arabera.

«Obra ttikien Saila desagertzeko bidean dago»

Obra ttikien arloa, batez ere lorezaintzari lotutako erakuntza eta mantenimendu lanak egiteko sortu zen. Hemen ari dira Poskoneako hiru guttutu fisikoak. «Ez dugu inoiz andamiarik jartzen edo arriskua izan dezaketen lanik hartzen». Zuzendariaren ustez, erakuntza sail ttiki honek errentagarritasun ona badu ere, aitzinera begira, desagertuko dela uste du. «Lanek segimendua eskatzen dute eta horrek denbora kentzen zidan. Gainera, sobera kualifikatu gabeko jendea eta kualifikatu gabeko soldata duenari ezin zaio gehiegi eskatu».

Arraultze salmentan, azkenik, pertsona bakarra ari da egun erdiz, duela urte batzuk Poskonean zituzten 6.000 oiloak kendu baitzituzten. Orain, Iruñeko oilategietatik ekarritako arraultzeak saltzen dituzte, Iruña, Gipuzkoa eta Baztan-Bidasoa inguruan. «Lehen, produkzioa eta salmenta egiten genuen, baina egiten dirua uzten duena komertzializazioa dela konturatu ginen, beraz orain saldu bakarrik egiten dugu» dio Salvador Sobrinok. Oila-tegia zegoen lekuan lorezaintza tresnen biltegia eta aldagela egin dute.

Poskoneako atarian, lorategi ttiki bat egiteko asmoa dute orain, mahai batzuekin, atsedendietan egoteko edo uda partean bertan bazkaltzeko.



«Langileen garraioa da daukagun arazorik larriena»

Baztan-Bidasoako ikuspegitik, Elizondoko Berro auzoa ez da, akaso, kokapen egokiena honelako lantegi baten dako. Salvador Sobrinok berak dioenez, «arazorik haundiena garraioa da, gurasoek eurek gehien eskatzen dutena da. Guk Elizondotik honat garraio zerbitzua eskaintzen dugu, baina Elizondoraino langileak beraiek etorri behar dute, eskoletako autobusetan

Ezker-eskuin: Josemi Iriarte (lozezainen arduraduna), Salvador Sobrino (zuzendaria), Patxi Altuart (gidaria eta biltegiaren arduraduna), Mertxe Garate (industria arloko arduraduna), Lourdes Saez de Asteasu (sikologoa), Fatima Gil Perez (gizarte laguntzailea) eta Juanjo Otermin (monitorea).

edo kotxetan». Eskariak izan dituzte, «baina enpresak ez du horretan sartu nahi eta ulertzekoa da, joan-etorri horrek



Salvador SOBRINO Poskoneako zuzendaria

«Lorezaintzan eta eraikuntzan ari direnak gehiago integratzen dira»

Noiztik ari da lanean Poskonea?

□ 1981ean Baztango ANFASeK Enplegu Zentru Berezia sortu zuen Poskonean. Honek, Hezkuntza Bereziko taldeari segida eman zion, garai hartan ez baitzegoen horrelakorik Hezkuntza Publikoan. Beraz, lehenbizi eskola eta gero lana eman zitzaion. Zortzi neskekin hasi

ginen. Izan ere, mutiak etxean lanean gelditzen ziren. Baserria erosi eta baztandar aunitzen auzolanari esker moldatu zen. 1989an Tasubinsazio Poskonea izatera pasatu ginen. Nafarroako Gobernu eta ANFASeK akordio baten bidez.

Guttituak integratze-ko baliagarria da lan hauetan aritzea?

□ Lorezaintza eta eraikuntza arlokoak integratuagoak daudela uste dut, beraien lana herriz herri, errepideetan edo partikularren etxeetan egiten baita. Harreman zuzen horrek eta ongi egindako lanaren estimazioak gehiago estimulatu du langilea. Honek ez du erran nahi lantegian ari direnek emaitza bera lortzen



ez dutenik. Hauek ere gero eta autoestima haundiagoa dute, gero eta baliagarriagoak sentitzen dira eta horrekin batera soldata irabazten dute hilabetero, Aseguru Soziala erretiroa segurtatuz...

gastu haundia suposatzen baitu». Arazo hauek direla eta, lantegia Legasa edo Oronozen kokatzeko saioa ere izan omen zen, «baina ez da deustan gauzatu».

Jantoki zerbitzua zortzi hila-betez eskaintzen dute Poskonean bertan. Uda partean, lanaldi intentsiboa egiten dute eta langileek etxera bazkaltzera joateko aukera dute. Lorezaintza taldeak urte osoan lanaldi intentsiboa izaten du, «beraiek eskatuta. Lana erre-xago egiten dute eguzkiak jotzen ez duenean eta gainera, joan-etorria egiteko baliabideak dituzte».

«Informazio jardunaldiak antolatu ditugu»

Poskonean egiten duten lana kanpoan ezagutzera emateko lehen informazio jardunaldiak burutzen ari dira asteotan. «Kanpoko jendeak, enpresak... hemen zer gauzak egiteko gai diren ikustea arras baliagarria izanen da. Nik beti erraten dut gu baino langileagoak direla eta katean lan eginez, laguna lan bat egiteko gai dela ikustean, beraiek ere gehiago saiatzen dira» Sobrinoren arabera. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.600 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi@encomix.es

uzendaria: Joxemanuel Iri-

oioren. **Publizitatea:** Miren Kar-

nele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-

tor Arozena, Asier Gogorza, Jo-

xemanuel Irigoien. **Administra-**

zioa: Amaia Goia. **Erredakzio**

aldea: Pello Apezetxea, Juai-

as Paul, Kristina Boan, Bittori

elletxea. **Berriemaileak:** Jose-

ba Azpiroz, Esteban Arozena,

Luana Mari Saizar, Ainhoa Mu-

ndaberria, Iban Isasi, Patxi Otxan-

dorena, Jaione Otxandorena, Al-

ba Fernandez, Pablo Mendiburu,

Joseba Igarabide, Franc Dolo-

zor, Margari Etxenike, Koro Ira-

oki, Mixel Gerendiain, Jacque-

line, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Pello

Apezetxea, Aitor Arozena, Asier

Gogorza.

olaboratzaileak: EHNE Nafa-

oa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

er Etxeberria...

primategia: Gertu.

tipi-ttapak ez du bere gain har-

ren derrigorrez, aldizkarian adie-

zitatiko erranen eta eritzien eran-

ukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-

ti, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako Eus-

karara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

ria...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Aspe-Asegarce norgehiagoka: pilotaren mesederako edo kalterako

Gauza guzietan bezala, pilotan ere kompetentzia izatea oso ona duk



Asier OLAIZOLA
Goizetako pilotaria

Bi urtez Altin egon naiz -Asegarceren barneko enpresa- eta Asperekin fi-

txatu behar nuela jakin dutenean hilabete terdiz frontoietatik baztertu naute, partidurik jokatuz gabe. Pixko bat nazkatua egon naiz, baina orain gogo haundiekin nago. Asperekin lehen partidua San Jose egunean jokatu dut Oñatin. Eskuz banakako txapelketatik ere kanpo utzi naute. Altik ez zuen nere izena eman, Aspera joan behar nuelako eta honek ezin ninduen apuntatu, oraindik kontraturik ez nuelako. Halere, txapelketa nola gelditu den ongi iruditzen zait. Hasiaran txarrena ematen zuen, baina problemarik gutxienez izateko modua hori da, bi enpresako pilotariak bere aldetik eta bi onenak finala jokatzea. Arazo haundiagoa izanen da bi telebistak elkar hartzea. Neretzako onena finala biek botatzea izanen zen, baina egunkarian igual ez dutela emanen jartzen du. Enpresa berri bat sortzea oso ona duk, bai pilotarientzat, baita pilotazaleentzat ere. Asperen sorrerarekin afizionatu batzuk ere debutatzen hasi dituk, dena mugitu egin duk. Gauza guzietan bezala, kompetentzia izatea ona duk.

Enpresa bakarra zegoenean pilotariei baino gehiago diruari begiratu diote



Juanjo ATXA
Elizondoko pilotazalea

Enpresa berri bat sortzea mesedegarria da pilotarientzat eta, batez ere, pilotarientzat. Orain arte, enpresa bakarra zegoenez, kontratu laburrak izaten zituzten eta orain, berriz, kompetentzia sortu da eta bortz urtetarako kontratuak egiten hasiak dira. Pilotarientzat lasaitasun handia da. Diru aldetik ere, orain bi eskaintza izanen dituzte eta, normala denez, onena aukeratu ahal izanen du. Nere ustez Asegarce pasatu egin da, nahi duena egin baitu orain arte. Pilotariei baino gehiago diruari begiratu dio. Euskar Telebistak zerbait egin beharra zuen, ez dakit gaizki edo ongi egin duen, baina pausua eman du. Afizionatu mailako pilotariak ere gogo gehiagorekin arituko dira orain, telefonoaren ondoan egonen dira. Txarutako Otxandorena kontratatu dute eta badirudi bertzeren bat ere hartzeko asmoa dutela. Horrek guri, talde bezala, ahulduko gaitu, noski. Euskadiko txapelketan, adibidez, Ohorezko Mailan ari gara eta atzelaririk gabe gelditu gara. Baina pilota eskola guzien helburua pilotari profesionalak ateratzea da. Horrek pozez betetzen gaitu.

Finala telebistan ez ematea gaizki iruditzen zait, jendeak ilusioa baitu hori ikusteko

Ramon ONSALO
Apostu korredorea. Areso

ASPERen sorrerak mesede handia egin dio pilotari eta haundiena. pilotarieri, enpresa asko jartzen baitzaizkie lan egiteko eta aukera hori... Txapelketa antolatu duten moduan oso ongi iruditzen zait, hor denak sartzeko aukera dutelako eta seguruenik, gauzak dauden bezala, modu hobirik ez zegoelako. Etorkizunera begira, pilotari mesedea ekarriko dio, eta ondorio txarrik ez. Ez bada antolakuntza ongi ateratzen, enpresaren bat itxiko da eta kitto. Nonahitik deituko dituzte pilotariak, diru gehiago irabazteko aukera izango da eta kompetentzia haundiagoa. Txapelketan, hiru enpresetako pilotariak jokatuko dute eta horrela, aspaldiko urteetan baino pilotari gehiago eta partidu gehiago arituko dira. Pilotazaleentzat abantaila handia, astebururo izango baita nahiko pilota partidu eta telebistan gainera. Baina beti bezalaxe, bi hoberenek jokatuko dute finala. Orain enteratu naiz ez dutela telebistan emango finala eta ez zait batere ongi iruditu, jendea ilusioa baitu partidu hori ikusteko eta pilota gaurko egunean oso modan baitago.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 16etatik 20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Euskaraokea Malerrekara etorri zela eta

Unai PETIRENA (Sunbildarra)

Dainua: Sarasuaren Zortziko Haundia

Euskaraoken apuntu nintzen eta ezin nuen etsi kantari onak baziren eta horiek ezin gaitzetsi asteartean agertu nintzen merezi edo ez merezi garaile jarri bait ninduten ni ta hori nola sinetsi.

Dantzari onak ere baziren eta ongi egin zuten nere klasetik bortz irten ziren «Rolling Stones»ena egiten bikain gelditu ziren hauetxek ezerk ez zituen eten sorpresa handi bat hartu zuten bigarren baitziren irten.

IRAKURLEAK MINTZO

Euskal Presoak Euskal Herrira

Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapenak, oihartzun eta erro sendoak ditu euskal gizartean. Behin eta berriz, herriak bere borondatea erakutsi du gai honekiko, hau da, presoak Euskal Herrira ekar ditzatela. Zorixarrez, ordea, agintariak eskakizun honi gor eginez, arazoak bere horretan dirau. Hori dela eta, behin eta berriz atera behar izan dugu kalera eskakizun honen zilegizkotasunaz ohartzeko, eta bidenabar, eskakizun hau betetzeko dagoela oihukatzen.

Horrela bada, hontakoan gazteaok hartu dugu lekukoa, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko konpromezua berretsiz. Era berean, eskari hau bete dadin, gure eskuetan dagoen guztia egiteko borondatea agertzen dugu.

Presoen sakabanaketa, presoen duintasun eta eskubideen urraketa dakar. Halaber, presoen senideendako zigorra da. Sakabanaketa, erabaki politikoa da, alderdi politikoa ezberdinek adostua presoak kartzelan urratzeko.

Honen aitzinean, gaur egun dagoen legedia betetzea eskatzen dugu.

Horrenbertez, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kaleratzea eskatzen dugu. Modu berean, zigorraren 3/4ak bete dituztenendako arestiko neurri bera eskatzen dugu. Honekin batera, presoek beren zigorrak Euskal Herrian betetzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Gure eskariak beraz, garbiak dira; presoen duintasun eta eskubideak berma eta bete daitezela. Nolanahi ere, gure lana presoak etxean egoterakoan akituko da.

ESPETXEAK APURTU!
PRESOAK EUSKAL HERRIRA... ETXERA!

BAZTANGO
GAZTE ASANBLADA



Malerrekan TTIPI-TTAPA telebistari bai!

Doneztebeko Udalak TTIPI-TTAPA telebistari baimena ukatu diola jakiteak ni ere "harrituta" utzi nau, eta zonaldeko zenbaitekin solastu ondoren aunitz gara horrela sentitu garenok. Gure kasuan, harrituta gelditzeaz gain arras kezkatu ere gaudela aitortu behar dut, Doneztebeko Udalak kulturarekiko utzikeria hala nola eragozpenak agertzen dituelako behin eta berriro. Ez dut hasi behar kasu guztiak aipatzen, zerranda soberra luzea izanen baitzen. Adibide sinple bat aipatzeagatik: zirena. Gero eta emanaldi gutxiago eta txarragoak. Udalekoek nola gauzatu jakin nahi badute aski dute Leitzakoei galdetzea, gaurkotzeko pixka bat.

Doneztebeko Udalak ez du kultura bultzatzen, gainera, bertzeek eskeinitako ekintzei trabak paratzen dizkie. Xalota telebista ikusteko aukerarekin poztu eginginen. Oraingo honetan, Malerrekako biztanleok TTIPI-TTAPA telebista ere ikusteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Zergatik bati baimena eman eta bertzeari ez? Arrunt susmagarria.

Dena den, argi dago, talde bati botoa ematerakoan ia gehiago eta hobeki pentsatzen dugun, Doneztebeko Udala egiten ari dena ez baita kanpaina politikoa barrenean erraten diren asmo politikak, errealtate latza baizik. Eta ikasteko, errealtatea dugu biderik xuxenena.

MALERREKAKO BIZTANLE BAT



Astero kantuz aritzeko gonbidapena egiten dute Amaiurtik

Urteen pasionez ohiturak aldatu dira eta gauza batzuk sortu diren bezala, bertze batzuk galtzeaz daude. Hauxe da bazkailondoetan kantuz aritzeko ohiturarekin gertatu dena, ez bada galdu ere, guttiago aritzen gara naberria baita.

Edozein otordutan, kantatzen hasi bai hasten da jendea baino estribilloa edo lehendabiziko estrofa kantatuz gero gelditu egin behar, ez baitakite segitzen.

Oskorrik (Euskalerrian) eta Doike Euskara taldeak (Baztanen) ohitura hau berreskuratzeko asmoa agertu dute, batek diskoa plazaratuz eta bertzeak liburuxka bat banatuz.

Amaiurren ere zerbait egiten ari dira. Duela bizpahiru urte herriko elkarteetan talde bat juntezen hasi zen, baino norbaitek zuzendu gabe zaila zela ikusi zutenean Elizondoko Femandok (musikan aditua) hartu zuen lan hori.

Gaur egun 8-10 lagun elkartzen dira eta 2, 3, eta 4 ahotsetan aritzen dira, tarte goxo bat pasatzeko helburua dute eta ez Euskal Kantu Txapelketara aurkezteko asmorik (ez momentuz behinpin).

Artikulu honen bidez interesatua egoten ahal den edozeini gonbidapena luzatzea nahi izan dute. Nahi duenak aski du asteazkenean gaueko 9,30etan Amaiurko Gaztelu Elkartera agertzea eta kanturen bat arras gustokoa baldin badu ekar dezala, horixe ikasteko aukera ere izanen baita.

Ez da musikan aditua izan beharrik, ezta solfeo jakin beharrik ere, ez baitira profesionalak; nahikoa da kantatzeko go-goa eta ongi pasatu nahi izatea.

IXABEL ALEMAN



ttipi-ttapa
Ameriketara bidaltzea
erdi prezioan gure bitartez
Franko Kontzertatuari esker, aitzakaria guk bidaltzeak, zuk bidaltzeak baino erdi prezioan kostatzen zaizu.
Iparraldetik deitzeko 19-34-48-
Hegoaldetik deitzeko 948-
631188

ttipi-ttapa internet
<http://www.encomix.es/ttapi-ttapa>
E-mail: ttipi@encomix.es

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Navarra Agraria, 98ko urtarrila/otsaila

«Landa-etxeekin emakumeak haintzat hartuak sentitu gara lanean. Jendeak inguruan duguna, natura, baloratzen erakutsi digu, eta egiten dugunak balio bat duela. Ekinen hau arras garrantzitsua izan da emakumeen-dako, Mendialdeko herrixka eta baserrietan lan aukera eskaxak ditugu-eta».

«Gizaki desberdinek izan ditzaketen gaixtoeria trazu guziak gaineratzen zaizkio arte erromanikoan Deabruari». Miguel Angel ASIAIN Historialaria Egin 98-III-15

Joxepi MIHURA
Elizondarra. Landa-etxeen 'Hiruak Bat' elkarteko kidea. Navarra Agraria 98-I/II

11 GALDERA LABUR

◆ **Ezagutzen al duzu Montserrat Caballé?**

◆ Bai, eta asko gustatzen zait gainera.

◆ **Eta Joxelu Anaiak?**

◆ Bai, eta hauek oraindik gehiago gustatzen zaizkit.

◆ **Flaco Jimenez, Antonio Aguilar edo Vicente Fernandez?**

◆ Flaco Jimenez.

◆ **Zenbat kantu mexikar dakizkizu buruz?**

◆ Hamar behintzat bai, gutxienez.

◆ **Zer emanen zenuke Mexikora bidaiatzeagatik?**

◆ Arrunt gustora joan nintzateke, baina nire gizonarekin.

◆ **Etxeko lanak ere kantari egiten al dituzu?**

◆ Bai, radiokasetta pixtuta.

◆ **Bost ume hazi eta hezi behar eta gainera umore paregabe hori. Nola lortzen da hau?**

◆ Umeak beraiek ematen didate umorea.

◆ **Hain gaztetik amona izateak zer suposatzen du zuretzat?**

◆ Poz ikaragarri bat.

◆ **Zure umeak taula gainean kantari ikustean zer sentitzen duzu?**

◆ Pozarekin batera nerbioak.

◆ **Medikuak edo kuranderoak?**

◆ Dudarik gabe medikuak.

◆ **Berriz jaioko bazina, zer izatea gustatuko litzaidake?**

◆ Orain bezala ama izateaz gain, abeslaria izatea asko gustatuko litzaidake.



Mari Pilar GOIZUETA
Etxekoandrea eta musikazalea
GOIZUETA

ttipi-ttapa
Zure publizitate-rik onena
631188

ttipi-ttapa internet
<http://www.eascomix.es/ttapi-ttapa>
E-mail: ttipi@eascomix.es

Ostargi Optika
Bidasoa karrika, 8 • BERA • © 948 - 63 07 53

LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzirala Betatik atzinerat Larunbata eta besta egunetan zabalik.
© 45 21 21 • LEKAROZ

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 630240 - 631495 • BERA

KARLOS ALZUGARAY
Masaje orokorra
Kirol-masajea
Bizkarreko arazoak
Lesioak
Drenaje linfatikoa
Erlaxazio-masajea
Hidromasajea
MASAJISTA OSTEOPATA
Antoiu 21, behea
LESAKA
Telf: 948 637 950
Mobila: 907 853208
Etxeetara ere joaten naiz

TTIPI-TTAPAren

zerbitzu komertzialak

LAN

KOMERTZIALAK

Kartelak, boletoak, fakturak, bisita txartelak, aldizkariak, egutegiak, liburuak, katalogoak, kartazalak eta pape-
rak, buzoiratze-ko pu-
blizitate orriak, inprimakiak...

FOILETOAK

Bi orrikoak, hiru orrikoak, koloretan eginak, zurbeltzean, offset-ean edo fotokopietan ...



TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

zerbitzu egoki eta profesionala eskaini nahi die bere lagun eta bezeroei. Horretarako sortu du **KULTURKARI**, zuk behar duzuna momentu batean egiteko, zure gustura diseinatua eta merke. Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

KARTELAK

Neurri, kolore eta paper desberdinetan



ALDIZKARIAK

Komeni zaizun neurri eta kopuruan, zure gustora diseinatua



INPRIMAKIAK

Kartazalak, buzoiratze-ko pape-
rak, egutegiak, errekor-
datorioak



631188



KULTURKARI

Abertzaleek aintzinerat egin dute kostaldean

Eskuineko hiru hautetsik beren aulkia erdietsi dute lehen itzulian

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 15ean iragan ziren eskualde hauteskundearen lehen itzuliko emaitzak ez dira txarrak izan Ipar Euskal Herriko zerrenda abertzaleentzat, Baina Eskualde Kontseilurako ez dute ordezkaririk lortu. Abertzaleen Batasunak bozen %8,39 jaso zituen Iparraldean eta Euskal Herriaren Alde (PNBk sustengatua) %3,68. Kantonamendu guzietan bozen %5era iritsi da Abertzaleen Batasuna. Garazi, Hazparne eta Iholdin bigarren indar bezala sendotu dira abertzaleak. Akitanian, baina, Biarnoko bozak ere kontuan hartuta, ABk bozen %3,78 jaso zituen eta EHAK %1,82. Bozen %5 behar dira ordezkari bat lortzeko.

Hauteskundearen balantzea egitean, ABk boto abertzalea kendu izana egotzi dio EHARI.

PNBk sustengatutako zerrendak, ordea, ukatu egin du hala izan denik. Gainontzean, indar oreka ez da nabarmen aldatu Ipar Euskal Herrian eta RPR-UDF eskuina aise nagusitu da.

Beraz, Pirinio Atlantikoetan aldaketa nabarmena ageri bada ere (alderdi sozialista, RPR-UDFren maila hartu du), iraultza Biarno aldean izan da, Ipar Euskal Herrian baino gehiago. Hemen, UDF-RPRk mila boz inguru galdu baditu ere, abstentzio oso azkarraren ondorio izan da bereziki, portzentaia goiti egin da. Sozialistek ere goiti egin dute, behar bada zerrenda gutiago aurkeztu direlako eta Ehiztariaren galera baliaturik. Ipar Euskal Herriak sei ordezkari izanen ditu Bordeleko Kontseilu Nagusian: Maitia eta Capdevielle sozialistak, Lissar ber-

1. itzuliko emaitzak

Bozketak egiten diren kantonamenduak



Alderdiak	1992		1998	
	Votos	%	Votos	%
PCF	3.229	6,58	3.615	8,20
PSF	7.869	16,03	8.994	20,41
Verts	1.614	3,29	1.354	3,07
AB	4.905	9,99	4.279	9,71
UDF	7.875	16,05	10.523	23,88
RPR	15.698	31,99	11.339	25,73
FN	3.345	6,82	3.218	7,30
Bertzeak	4.541	9,25	751	1,70
Zentsoa	72.619	100	76.471	-
Abstentzioa	21.512	29,62	30.225	-
Xuriak/b.gabe	2.031	3,97	2.173	-

Lehen itzulian aukeratutako hautetsiak

Kanton.	Hautetsia	Emaitza	
		Bozak	%
Iholdi	Jean Louis Caset (UDF)	1.508	53,44
Hazparne	Jacques Coumet (RPR)	3.345	63,11
Atharratze	Michel Armancet (UDF)	2.131	58,94

dea, Brisson (RPR) eta Lasserre eta Grenet (UDF). Lehen hirurak

Euskal Departamendua-ren sortzearen alde agertu dira jendaurrean.

Nafarroako Ezindu Fisikoen elkarteak opor egitaraua prestatu du

Nafarroako Ezindu Fisikoen Elkarteak gutxitasun fisikoa edo sensoriala duten pertsonendako urte honetako opor-egitaraua prestatu du.

Ezinduek lau oporleku izanen dute aukeran: Benidorm, apirilaren 9tik 18ra; Lisboa, ekainaren 6tik 30era; Paris, abuztuaren 1etik 8ra eta Benidorm, irailaren 19tik 29ra.

Oporraldi hauetan parte hartu ahal izateko honakoa eskatzen du Ezinduen Elkarteak: Nortasun-agiriaren fotokopia, karnet tamainako argazki bat, ezintasun-agiriaren fotokopia eta diru-sarreraren agiria. Eskariak martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira, norberaren udaleko Gizarte Zerbitzuan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, telefono hauetara deitzen ahal da. Bortzirietako Gizarte Zerbitzua (635036); Baztango Gizarte Zerbitzua (580006); Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea (451746) edo Leitzaldeko Gizarte Zerbitzua (610617).

SAROBE
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 637503 • LESAKA

Dia 
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 63 14 03 • BERA

456 milioi pezetako aurrekontua onartu du Udalak

Hamabortz eguneko epea izanen da erreklamazioak egiteko

ASIER GOGORZA

Joan den urtean baino 100 milioi pezeta gehiagoko aurrekontua onartu du Udalak 1998 urterako, 456.232.140 Pta hain zuzen ere. Iaz, berriz, 339,8 milioi ageri ziren urteko aurrekontuetan.

Egun hauetan kontuak ikusgai daude Herriko Etxean eta erreklamazioak egiteko aukera dago. Boletin Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epean.

Kultur Batzordea

Herriko kultur taldeek bilera berri bat izan zuten martxoaren 17an Herriko Etxean, aurtengo kultur programazioari buruzko hainbat xehetasun finkatzeko. Hasteko, Udalarik kultur ekitaldietatik biltzen den dirua kulturarako altxatzea eskatu diote, eta Kultur Batzordea bera izan dadila diru hori gestioatuko duena.

Gainera, urtean zehar bi hilabetetik behin bilera bat egitea erabaki zuten, ez baita kontua urtean behin dirua partitzeko bakarrik juntatzea. Bilera horietan, egin direnak baloratu ondoren, hurrengo bi hilabetetan burutuko diren ekintzen berri bilduko da, gero egitarau



Martxoaren 17ko Kultur Batzordearen bileran egondu zirenak.

bat osatu eta jendeari ezagutzera emateko.

Honen harian, publikizitate egoki batek duen garrantzia azpimarratu zuten talde desberdinetako ordezkariak, eta kultur ekitaldiak iragartzeko herrian zehar taula egonkorak ezartzea pentsatu zuten, orain Udalaren bandak jartzeko daudenen modu beretsuan.

Bertzetik, urtariletik abendura eginen diren ekitaldien arteko oreka bilatzeaz ere aritu ziren solasean, adin eta gisa guzietako jendeari nahi duen hura eskaintzen zaiola segurtatzeko.

Bertze gai bati bu-

ruz ere mintzatu ziren bilera bukatu baino lehen. Izan ere, Udalak diru kopuru bat bideratu baitu kultur koordinatzaile bat kontratatzeke, eta Kultur Batzordeak langile horren ezaguarriekin txosten bat aurkeztu dio Udalari.

"Pinotxo"

Apirilaren 7an, Aste Santu bezpera, Labiaga ikastolak antolatutik "Pinotxo" txontxongilo emanaldia ikusi ahal izanen da goizeko 11etik aitzinera Kultur Etxean. Haur eta Lehen Hezkuntzakoentzat.

Amaren hiletara eramán zuten Sebas

Senide eta lagunek instant batez Sebas agurtzeko aukera izan zuten martxoaren 14an Portugaleten, bere amaren heriotzagatik egin zen hileta elizkizunean. Gaur egun Langraitzeko kartzelan preso dagoen Jose Luis Sebastian beratarrak poliziaz inguratua egondu zen bere amaren ehorzketak iraun zuten bitartean, bainan Beratik joandako zenbait lagunek harengana hurbildu eta animoak ematea lortu zuten hala ere.



flash

Middendorf...

metodoari buruzko ikastaroa emanen du Wolfgang Jurgies irakasleak apirilaren 2tik ekainaren 25era Beran, hats esperimentagarria eta sendaketa osoaren gainean. Ortzegunero arratsaldeko 7etan izanen dira saioak. Interesatuak 630722 telefonora deitu.

Txirri, Mirri...

eta Txirribiton pila-zoen emanaldia izanen da ikusgai igande bazkaldoan Berako Kultur Etxean, arratsaldeko 5etik aitzinera. Labiaga ikastolak antolatu duen ekitaldi honean, Urruñako ikastolaren aldeko kanpainaren berri emanen da.

Skunk...

hendaiarrek eta Bretainiako Tagada Jones (punkcore) taldeek joko dute bihar Puin, arratseko 10etan hasita. Skunk-ek Jankktalo bere azken diska aurkeztuko du.

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 630 031 • BERA

**FOTO
GOIKO**

Altzate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



Altzate, 19 • 630786 • BERA

LESACA

7.217.000 pezetako aurrekontua izanen du aurten Beti Gaztek


Gaur egun dituen 817 bazkideek zerbait gehiago ordainduko dute kuota

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak 7.217.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten, batzarrare orokorrean onartu zenez. Joan den urtean 158.949 pezetako defizitarekin akautu zuen (9.006.346 ptako diru-sarrerak eta 9.165.295 ptako irteerak).

Aurtengo kirol ekitaldiei begira, futboleko zazpi taldeek, areto-futbol, saskibalo, sokatira, txirrindularitza, xake eta mendi taldeak urtero bezala egingen dituztenekin batera, burmuin elbarriendako Espainiako futbol eta txirrindularitza txapelketak antolatuko ditu elkarteak ekainean.

Zenbait urtetan bazkideen kuota igo gabe egon denez, aurtengoa igoera tiki bat egitea onartu zuen batzarrak. Honela, helduek 3.000 pezeta ordainduko dute (orain arte 2.500 ordaintzen zen), gazte-txoek 1.750 eta haurrek 1.000 pezeta. Elkarteak 817 bazkide ditu orain. Hemendik aitzinera, kirolariak beraien aseguru ordainduko dute denboraldi hasieran. Arrazoirik gabe taldea uzten ez badute, dirua denboraldia akautzean izuliko zaie.



Lesakarrak sasoian

Sasoi betean daudela erakutsi zuten Beti Gazteko tiralariek martxoaren 7an frontoian jokatu zen Euskal Herriko 560 kiloko sokatira txapelketaren saioan. Beraien multzoan tiraldi guztiak aisa irabazi zituzten eta txapela janzteko fabritoen artean daudela erakutsi zuten. Biharamonean, 640 kiloko saioan ere nagusitu ziren.

Argazkia: Aitor

flash

Bidasoako Trenaren

ibilbidea berreskuratzeko proiektuaren alde agertu da udala ahobatez. Bertziko Turismo Partzuergoak Bide berde bihurtu nahi du trenbide zaharra.

Bake-epailea

izan nahi duenak apirilaren 11 baino lehen aurkeztu behar du bere eskaria udal bulegoetan. Bere ordezkoa ere hartuko da.

Xorroxin Irratiak

Lesakako irrati-lizentzia eskuratzeko nahian ez du Herriko Etxearen babesa izanen. Bere babes eskariaren alde agertu ziren EA eta HB, baina PNVk kontrako botua eman zuen, «frekuentzia Nafarroako Gobernuak ematen duelako».

'XV. Txoko-Txiki' ipuin lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu du ikastolak

«Txoko-txiki» ipuin lehiaketaren 15. edizioan parte hartzeko epea zabaldu du Tanti-rumairu ikastolak, sei eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta. Gaia librea izanen dute eta 1. eta 2. mailakoek, guttinez orrialde bateko luzaera duen ipuina idatzi beharko dute, 3. eta 4. mailakoek orrialde

terdi eta 5. eta 6. mailakoek bi orrialde.

Ipuinak apirilaren 20a baino lehen igorri beharko dira ikastolara, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz. Ikastolatik jakitera eman duteenez, «idazkerak ulergarria eta txukuna izan beharko du, bertzelan ez baitira zuzenduko».

Arrano elkarteak uztartze-besta antolatu du larunbat honetarako

Txantreako Kaskallueta elkartearekin sendotu nahi dituen harreran prozesuaren barranean eta eurek emandako besta-afariaren ordain moduan, uztartze-besta antolatu du Arrano elkarteak larunbat honetarako, martxoak 28.

Arratsaldeko 5etan harrera egin eta herria erakutsiko zaie txan-

trearrei. 6etan berendua eskainiko da Arranon. 7,30etan poteotriketixa eta kantaldia Kaskalluetako abesbatzarekin. 9,30etan afaria izanen da (txartelak 1.500 pezetatan salgai daude) eta afalondoa dantzaldia. Elkartetik adierazi dutenez, izena ematen duten lehen 30 bazkideentzat izanen da lekua.

Kixkur
Ileapaindegia
Tel: 63 74 29
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESACA

INAXIO JANARIDENDA
Igantetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESACA

BEHEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa • 63 78 26
LESACA

ETXALAR

180.000 arbola landare sartuko dira Zabaleta eta Unanegiko lur mazeletan

Ondoko urteetan zatika egingen da lana, seguraski

PELLO APEZETXEA

Gogoan dugu denok, Otazu familiari Zabaleta izeneko mendiaren zati haundia erosi ziola Udalak, berriki oraindik. Aitzineko denboretan Zabaleta familia eta etxearena izana, Herriak bereganatu zituen ia ehun hektarea. Pinuz bete zegoen, baina saldu aintzinetik dena moztu eta lur eremua kaskasoil gelditu zen. Orain ailegatu zaio, berriz ere arbolaz hornitzeko ordua, lurra bera eta tokia ere emankorra omen da, gainera. 91 hektareako plantazioa egingen da eta ia 150.000 landare paratuko dira denetara: 28.000 Laurizio pinu, 40.000 bertako haritz, 37.000 Douglas ize edo abeto, 16.000 Insignis pinu, 8.000 bago, eta bertzelako zenbait landare. Horren guziaren



aurrekontua, 50 milioi. Bertze plantazio asmoa Unanin da egitekoa, Bera herriarekin mugatzen duen mazelan, 20,5 Hakoa. 11.000 bertako haritz eta 20.000

Douglas pinu sartuko dira, eta 11 milioi kostako da. Proiektuak dira oraindik, eta, seguruen, zatika egingen dira, Gobernuaren dirulaguntzaren arabera, la-

Pilota plazaren moldaketak burutuak

Aintzinpareta harriztatu, ezkerpareta pintatu, eta bazterrean pilotak biltzeko sarea paratzearekin, txukun eta egokitua gelditu da herriko pilotaplaza. Dagoeneko hasi dira haurrak eta helduak lekuaz gozatzen.

Argazkia: Joxemanuel

guntza hori nahitaezkoa baita, 61 milioiko kostua estaltzeko.

Larraburuko partxis txapelketa bukatu da

Urte berriko igande-

etan, arratsaldeko zenbait ordu betetzen lagundu duen partxis txapelketa, udaberriko sarrreran izan du akabera. Joko guzietan bezala, momentu larriak eta la-saigarriak eman ditu, baina neguko atsalde ilunak lagun artean pasatzeko modua izan da.

Urdaiazpikoen mus txapelketa ere burutu da

Udazkenean jokatzen den mus txapelketaz gain, Larraburuak bigarren txapelketa bat ere egingen du azken urteetan, hiru urdaiazpiko tartean. Irabazleek urdaiazpiko bana eramaten baitute. Hirugarrena, berriz, elkarrekin bildu eta jateko izaten da. Txapelketa San Jose Egunean izan zuen azkena, eta urdaiazpikoaren afaria martxoaren 28an egingen da.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 627573 • LESAKA

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

ANA
Janaridenda
Bittiria, 41 • © 63 79 44
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

KOXKILA
OSTATUA
Zarandia, 4 • LESAKA

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK
Paregabeko idi-txuletak
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: (948) 63 72 66

IGANTZI

Zahar-Etxean ere egin dute urteko batzar nagusia

Martxoaren 8an egin zen Piedadeko inaugurazio besta

OSKAR TXOPERENA

Zahar-Etxeko Elkar-tea sortu zenetik, martxoaren 14ean bildu ziren lehendabiziko aldiz bazkide guziak juntak deitutako batzarrean. Deus baino lehen, orain arte eramandako kontuen berri jakin ahal izan zuten bertara hurbildutakoek, eta ondotik, aurtengo egin beharreko ekintzak aipatu zituzten arduradunek.

Juntarako lau partaide berri aukeratuz eman zioten akabila bilerari. Herenia Izko, Antonio Lizardi, Carmen Hita eta Joxe M^a Gaztelumendi izanen dira hementik aintzineratutako partaide, lehendik segitzen duten Joxe M^a Begino, Ana M^a Zelaieta, Juan Antonio Urtxegi eta Juanita Urtxegirekin batera.



Mus eta partxis txapelketa

Martxoaren 7an jokatu ziren Biltokiko mus eta partxis txapelketen finalak. Partxisean Tere Txoperena eta Amadeo Arretxeak eraman zuten txapela, Axun Iribarren eta Pili Iturbideri finalean irabaziz. Musean, berriz, Emilio Mendigutxia eta Aniceto Etxeberriak ezin izan zuten txapela eskuratu, Severino eta Ramontxo Retegi anaiek menderatu baitzituzten finalean. Ondotik afaria eta dantzaldia goizalderarte Modestorekin.

Piedadeko ermita berriua

Martxoaren 8an ospatu zen ezin politagoa

gelditu den Piedadeko ermitan lehendabiziko meza. Obren kontuen berri eman zuen apezak,

hainbertze ordu bertan eman dituzten herritarrei beren lana eskertuz. Halere, kanpotarrek

egindako zenbait lanek eta erabilitako materialak 650.000 pezetako defizita utzi dute eta herrian egin den eskearakin ordainduko dela espero da. Orain arte ez bezala, itxita egonen da ermita, baina sartu nahi duenak leku jakin batzuetatik hartzen ahal izanen ditu giltzak. Parrokiak eskeinitako hamaketakoarekin bukatu zen besta.

Garbiketa lanpostua

Apirilaren 5a bitartean botatzen ahal izanen dira Biltokiko buzoian bertako garbiketarako lanak egin nahi dituztenen eskeintzak. Baldintza guziak hemen aipatzea ezinezkoa zaienez, interesatuek bertara hurbiltzea da hoberena, kontuak ongi ateratzeko nahiko informazio harrautuko baitute tabloian.

BERRIZAUN S.L.
 LUNDS TRIMULSIONES MECANICAS
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • ☎ 627572 • Faxes: 637313

TXIRULA
 • bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •
 Albistur, 39-K
 ☎ 627542 • LESAKA

IRU BIDE
 ERRETEGIA
 Tfnoa: 637127
 LESAKA

LESAKA
 zabaldu ostaturak

ATM S.A.
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
 Igantziko Bentak • ☎ 63 74 11 • Faxes: 63 73 13

LANCHAS
 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura Orokorrak
 Bera ☎ 630735
 Irun ☎ (943) 622305

BOTXO ostaturak
 Tfnoa: 63 00 52
 Zalain Auzoa, BERA

LABEZAR
 ☎ 631076 • BERA

ARANTZA

Hildako bi bazkideri omenaldia eskainiko die larunbatean Ekaitzak

Afaria izanen da soziedadean, bertsolari eta trikitilariekin

ELIXABET ETA GARBINE

Ekaitza elkarteak bazkide izandako Jose-txo Larretxea eta Peteri (Asier Lukanbio) omenaldi berezia eginen die larunbat hone-tan, martxoak 28. Arratsaldeko 7etan, Meza Nagusiaren ondotik herri kirolak izanen dira frontoian. Arratsean afa-ria izanen da sozieda-dean, Lizaso, Murua eta Sorozabal bertsolarie-kin eta herriko trikitila-ri gazteekin. Izena Belen edo Juanitari eman.

Lur-trukea

1.197 metro karratu-ko herrilurra desafektatu-ko da, Udalarena dena, eta honi baimena eman dio Nafarroako Gobernuak aipaturiko lursaila 178 metro kar-ratuko azalera duen bertzte lursail batekin trukatzeko. Azken hau



Frontoia ixteko 1.850.000 pezetako dirulaguntza

Frontoiaren hegoaldea ixteko lanak Fco. Javier Chocarro eta Maria Urmenetak zuzenduko dituzte, eskaintzarik osatuena eurek egin baitute. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak 1.850.000 pezetako dirula-guntza ematea onartu du. Argazkian frontoiaren inaugurazioa ageri da.

Josefa Iturbide Leiza-rena da. Trukearen xe-dea udal hilerrirako sar-bidea hobetzea eta, eraiki beharra den eskaile-rra baten bidez, bi karri-

ka komunikatzea da.

Euriteek hondatutako bideak moldatuko dira

Joan den urteko

maiatzeko ekaitzek hon-datutako bideak molda-tzea Hirurteko Planaren barnean sartu du Nafa-rrako Gobernu Leku Administrazio Departam-entuak. Lanen aurre-kontua 2.630.926 peze-takoa da eta Nafarroako Gobernuak 2.078.432 pezetako inbertsioa egi-nen du.


flash

Bake Epaitegiko epailearen ordeko kargua Manuel Ber-gara Almandoz izan-nen da. Erabaki hau Nafarroako Auzitegi Nagusiari jakinara-ziko zaio.

Eskolako gasaren izaoko gas-tuak ikusirik, Guraso Elkarteak eskolako sukaldeko gasaren kontsumoa ordain-tzeko alkatearen pro-positamena onartu du. Gurasoek eginen du-te aurtan ordainketa.

Kotxeak aparkatzeko lekuak marra horiz margotuko dituzte herrigunean. Gaizki aparkatuta daudenei abisua paratuko zaie hemendik aitzin.

Antton Maiz ASPE enpresako pi-lota hautatzailea izan-nen da.

ALBERGEA JATETXEA

 634179
 ARANTZA

EROSLE LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hobere-na
Frekuena zugandik hurbilago
 Bittiria, 67 - 637264


GRUPO ZURICH
 ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 • BERA
 63 07 63


DROGUERIA MOLINERO
 • DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
 Udaberrian, 'TKrom' kalitatezko pintura plastikoa eta esmaltea
%30eko merkealdiarekin
 Eztegarra 19 • 63 02 40 BERA

ANTZUZELAI
 Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
 ATERATZEA eta LANTZEA
 Antzinaldeak Tximiniak
 Angeluak Erlatzak
 Orma antzinak Moldurak
 Leiboak Zokaloak
 Ateak Hilariak
 Arkuak Marratzikiak
 Pilareak
 'Abuzantza' Muzioa
 'Zeluz antzokoa' Tuzpeitua
ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

SUNBILLA

Arrigazteluko eraikuntza lanen proiektua idazteko lehiaketa deialdia zabaldu da

Hasierako prezioa 14,5 milioi pezetakoa da

JAIONE ETA ALBA

Nafarroako Gobernuko Herrilan Saileko Zuzendaritza Nagusiak Arrigazteluko eraikuntza lanen proiektua idazteko lehiaketa deialdia zabaldu du. Lan hauek N-121-A errepidean egingen dira, Sunbillako sailhesbidea eta 59,5 Km.aren artean. Goieneko prezioa 14.500.000 pezetakoa da eta proposamenak apirilaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira Herrilan Saileko Erregistroan, 290.000 pezetako behin-behineko fidantza utziz. Lana adjudikatu eta gero, sei hilabeteko epea izanen da hau akitzeko.

Antzakaitz taldearen bilera garrantzitsua

Antzakaitz taldeak, Udalaren eta Ulibeltzak elkartearen laguntzare-



Ariztigain kanpalekua San Jose Egunean zabaldua

San Jose egunean zabaldu zituen bere ateak Ariztigain kanpinak. Inaugurazio ekitaldian txokolata banatu zuten. Haurrak jostatzeko aukera izan zuten parkean, helduek berendua hartzen zuten bitartean.

Argazkia: Karmele

kin antolatutako Asteburu Kulturala primeran igaro zen. Hasierako egitaraua pixko bat aldatu bazen ere, gustu guzietako ekin-

tzak izan ziren: pelikula emanaldia, haurren jokuak, txokolatada, diapositibak, gazteen berendu-afaria, garagardo besta, eskulan era-

kusketa, karaokea, txiste afaria, gaupasa, artisau feria, mus txapelketa eta partxis lehiaketa. Mus txapelketan Xako eta Xaka izan zi-

ren txapeldun eta partxis lehiaketan Maria Sarratea eta Miriam Maritxalar. Herriko dendek osatu zuten zere ederra Joxe Bixenterri egokitu zitzaion.

Asteburu Kulturala bukatu zen, baina Antzakaitz Kultur taldeak lanean segituko du ekintzak antolatzen eta larunbat honetan izan dute horretarako bilera.

Ehiza denboraldia akitzeko afaria

Martxoaren 7an herriko 45 bat ehiztari eta beren emazteek afari ederra egin zuten denboraldia akitzeko. Afalondotik, goizeko ordu tikiak arte dantzan ibili ziren, beti ere umorea lagun zutelarik. Gau berean, Fondan *Hemen-dik At* taldearen kontzertua izan zen. Gazte ugari erakarri zuen Iruñeko taldeak.

ttipi-ttapa internet
<http://www.oncomix.es/ttiji-ttapa>
 E-mail: ttiji@oncomix.es

**ZURE EZKONTZA EGUNA
 MUSIKAREKIN ALAITU NAHI BADUZU
 HEMEN GAUDE ZURI ALAITZEKO**
Jalisco Band
 Tel: 450590 Jalisco Tel: 450240 Juan Carlos

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.- Fax: 948. 63 10 27

DONEZTEBE

Iñaki Dieguez akordeolariak 'Collage' diska aurkeztu du larunbat honetan

Musika Eskolako zuzendaria eta Mendia abesbatzaren sortzailea da

PATXI IRIARTE

Iñaki Dieguez eza-guna da doneztebarren artean, Musika Eskolako zuzendaria izateaz gain, Mendia abesbatzaren sortzailea baita. Akordeolari profesional bezala, kontzertuak eskaini ditu Polonia, Frantzia, Portugal edo Eskozia bezalako herrialdetan. Berrikigago, Peio eta Pantxoaren azken jiran parte hartu du eta Frantziako telebistako kultur programean ere agertu da. Joan den larunbatean Donezteben aurkeztu zuen bere diska berria, 'Collage' izenekoa. Espainian lehen aldiz grabatu da zuzenean akordeoi eta orkesta sinfoniarako kontzertu bat, Irungo Orkestra Sinfonikoarekin. Doneztebeko kontzertuan Anibal Freire Portugaleko maisuarekin eta Gorka Dominguez bibolin-jolearekin aritu zen. Beraiekin batera Collage taldea eta Gaztelu Zahar, ahots baxuen abesbatza aritu ziren. Abesbatza hau, bere estiloan oneneta-



Iñaki Dieguez akordeolariak hainbat herrialdetan kontzertu arrakastuak eskaini ditu

ko bat izateaz gain, larunbateko kontzertuan Peio Hargouet tenore bikainaren laguntza izan zuen. Aipatu behar da Doneztebeko kontzertua, igandean Irunen egin zuen aurkezpen ofizialaren aurrerapena izan zela.

Bisitari aunitz

San Jose eguneko zubiak hainbat bisitari eka-

rri ditu Malerreka alde-
ra. Eguraldi onak eta Belateko tunelak lagundu dute horretan.

Zabortegia erabiltzeko prezioak arautu ditu Udalak

Udal zabortegia erabiltzeko prezioak arautu ditu Herriko Etxeak ordenantza baten bidez. Zabortegira botatako ki-

loen arabera ordainduko da. Honela, 1.000 kilo bitartean 500 pezeta ordainduko dira; 1.001 eta 5.000 kilo artean, 1.600 pezeta; 5.001 eta 10.000 kilo artean 2.600 pezeta; 10.001 eta 20.000 kilo artean 4.000 pezeta eta 20.001 kilotik goiti, 6.000 pta. Edozein modutan, zaborra bota baino lehen baimena eskatu behar-

ko da Herriko Etxean eta zaborra bota ondotik, zelaitu beharko da. Baimenik ez eskatzea, baimen-eskaria xuxen ez betetzea, materiale kimiko eta organikoak isurtzea eta zabortegia ez zelaitzea, arau-haustea larrizat hartuko dira.

Arkupeak elkarteak Kolonbiara

Arkupeak erretiratuen elkarteak bidai berri bat antolatu du, oraingo honetan Kolonbiara. Hogeita hamar bat bazkide apirilaren 18 eta 25a artean aterako dira, Cartagena de Indias eta San Andres irlan bi astez egoteko intentzioarekin. Beti bezala, helburu bikoitza izanzen dute: inguru hura ezagutu eta han bizi diren senide eta herritarrekin bildu.

Honako bidai honekin, seigarren aldiz doazi Arkupekoak Amerikara eta Felipe Ganboak errandakoaren arabera, «*bidaiak hauek dagoneko ez dute inolako antolaketa arazorik sortzen*».

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06

SANTAMARIA
Jatetxea
Especialitate euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI
TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

LAXOA



Laxoa txapelketaren aurkezpena Bertizko Partzuergoan egin zen martxoaren 18an Argazkia: Aitor

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren XIX. edizioa hasi da

Abuztuaren 2an jokatuko da finala Iruritako plazan

AITOR AROZENA

Igande honetan, martxoak 22, jokatutako lehen jardunaldiarekin hasiera eman zaio aurtengoan hemeretzigarren edizioa beteko duen Baztan-Errekako laxoa txapelketa. Txapelketa berri honetan zortzi talde arituko dira, iaz baino bi guttiago, Elizondok ez baitu parte hartuko eta Iruritak bi talde bakarrik plaza-tuko dituelako. Doneztebek hiru aterako ditu, Oitzek bi eta Arraiozek bat. Talde guttiago izan arren, «*liga sistema, denak denen aurka jokatuko denez, iaz baino partidu gehiago ikusi ahal izanen dira*» Tiburtzio Arraztoa, Laxoa elkarteak jakitera eman zuenez. Finalerdiak uztai-

laren 19 eta 26an jokatuko dira, ligan 1. eta 4. artean eta 2. eta 3. artean. Finala, azkenik, abuztuaren 2an jokatuko da, aurten ehungarren urteurrena betetzen duen Iruritako plazan. Aurten ez da kopa txapelketarik izanen, baina helduen txapelketa akitu orduko hasiko da Baztan-Errekako gazteen txapelketa, Irurita, Arraioz, Doneztebe eta Oitzko taldeen partehartzearekin. Negura begira, ekitaldi berriak egiteko asmoa ere azaldu zuen Laxoa elkarteak, ez plazetan, frontoietan baizik. «*Pasaka gisako zerbait egin nahi dugu, baina frontoietan. Gaztetxoenei jokuluzean hasteko aukera eman nahi diegu. Aldi berean, laruzko tresnaren erabilera ikastea du hel-*

*buru» adierazi zuen Arraztoa. Laxoaren etorkizunean, Donezteben sortu berria den erremonte eskolak izan dezakeen eraginari buruz galdetzerakoan, «*bi kirolak osagarriak izan daitezkeela*» erantzun zuten Laxoa elkarteek. «*Erremonteak profesionala izateko aukera eskaintzen du, dirua, ospea... baina eskolan hasten diren guziak ez dira profesionalak egiten eta, kirola gustokoa batute, laxoan izaten ahal dute irteera bat*». Josu Prim iruritarrek gaineratu zuenez, «*ez du batek bertzea kentzen, eta normalean, laxoan ongi moldatzen bazara, erremontean ere ongi moldatuko zara. Gauregundagoen erremontelari haundiena, Koteto Ezkurra, eta ber-**

tze aunitz, laxoan jokatzen hasi ziren».

Bertizko Turismo Partzuergoak bigarren urtez laxoa txapelketa babestuko du. Patxi Oiartzabal lehendakariak zioenez, «*Partzuergoak laxoari laguntzeko behar morala sentitzen du, nahiz eta gehiago merezi, posible den bitartean, urtetik urtera gehixeago emanez*». Pronostikoa baino gehiago bere gogoia ere erakutsi zuen Baztango alkateak. «*Azken urteotako Doneztebeko taldearen nagusitasunaren aurka, Baztangoak hurbiltzen ari direla eta txapela ekartzeko arriskua dagoela. Iaz Arraiozko taldeak lehenengo abisua eman zuen Kopa irabaziz. Beraz, kasu sakearekin!*».

Iruritako plazak 100 urte

Arestian aipatu bezala, Iruritako plazaren ehungarren urtea ospatuz, aurtengo finala bertan jokatuko da. Baina ez da hori izanen ospakizun bakarra. Josu Primek erran zuenez, «*hainbat ekitaldi ditugu buruan abuztuaren egiteko: finalaren errebotek, errebotek partidak ekarri Billabona eta Iparraldeko jendearekin, frontenisa plaza librean lehen emakumeek jokatzen zuten bezala, eskubaloia... Iruritakoak ziren lehen dantza, herri kirolak... Oraindik guttiz zehaztu gabe daude, baina merezi duen mendeurren ospakizuna izanen du Iruritako plazak».*



Josu Prim iruritarra

Datozen jardunaldiak

98-III-29

Oitz A-Donztebe A (12)
Arraioz-Donztebe B (12)
Donztebe C-Oitz B (larunbatean, 5etan)
Irurita A-Irurita B (12)

98-IV-5

Arraioz-Irurita A (12)
Donztebe A-Donztebe B (12)
Oitz B-Oitz A (larun, 5etan)
Irurita B-Donztebe C (12)

BAZTAN IKASTOLA

Udal Eskola Publikoa




Giro alai eta bizia diskriminazioarik gabekoa



Euskaraz bizi eta sentitzen duenarentzat aukera egokiena

Gurasuen partaidetzeri ateak irekiak



Gure kulturarekin konprometitua, bertze kulturareta zabaldua

Aurreinskripzioa: Martxoaren 30etik apirilaren 24ra

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

Kalitatea prezio egokian



Hilabeteko eskaintza berezia

Armairua (199), ohatzea (135), komoda (112), mahaittoak (52) eta ispilua bere markoarekin (95)

DESKONTU bereziak LANPARAtan

Erakusketa berritzeagatik %30a bitarteko DESKONTUAK

ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034
LESAKA



*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Lanbide Heziketan eskeintza ZABALA
Batxillergoetan eskeintza OSOA*

INSTALAZIOAK

- ☞ 5 Laborategi: Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ☞ 5 Informatika gela: Multimedia, sarea, autocard,...
- ☞ 3 Marrazketa gela.
- ☞ 2 Teknologia gela.
- ☞ Gizarte tailerra.
- ☞ 7 ikusentzunezko gela.

- ☞ 2 liburutegi: (20.000 ale).
- ☞ Tailerrak: soldadura, neumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa,...
- ☞ Kirol instalazioak: kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak...
- ☞ Jangela (DBHko 1. ziklokoentzat).

Elizondo: Diputazio Etorbidea, z/g. 31700

☎ 580012

Lekaroz: Uharte Auzoa, z/g. 31795

☎ 580200. E-mail: ies.lekarotz@cfnavarra.es



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

Euskara
Batzordea mintzo



Laguntzaile:
Nafarroako Gobernua

Malerrekako Mankomunitateak euskara plangintza onartu du

Pasa den otsailaren 17an Malerreka Mankomunitateak Euskara Plangintza onartu zuen. Batzar Orokorrean Euskara Zerbitzuak prestatutako plangintzari ahobatez baiezkoa eman zitzaion. 1998an Mankomunitateak 9.720.964 pta gastatuko du eskualdeko jardue-
ra eta ekimenetan. Plangintza ho-

netan sartu gabe geratu dira Udaletxe bakoitzeko kultur ekitaldiak.

Plangintza eskualdeko egoera soziolinguistikoan oinarrituta dago baina, kontutan izan behar da 13 udalerrri direla eta beraz, egoera eta errealitate ezberdinak izi direla.

Hizkuntza errealitate dinami-
koa aldatzeko dugu plangintza. Ikus


dezagun zertan gauzatuko den
1998ko Hizkuntza Plangintza:

Herri arrunt euskaldunak izanik, euskara gutti erabiltzen da gurean

Herri arrunt euskaldunak dira baina, non dago hutsune nabarmenena? **erabileran:** erabilera idatzian eta esparru zehatzetan (lan munduan, administrazioan...). Etorkizunari begira **gazteak** dira adin-multzoz garrantzitsu eta kezagarriena, beraz, gazteengan eragitea lehentasuna du. Beraiek dira talde aktiboena, produktiboena eta erranahi haundiko taldea osatzen dute geroari begira. **1997an Donezteben egindako karrika neurketan** datu hauek aurkitu ditugu: **%73,3 euskalduna izaki, %36,6 da karrikan eskuaraz aritzen dena.**

ADINA KONTUTAN HARTURIK

	0-14	15-24	25-64	>64
Euskaraz %	53	36,7	29	25
Erdaraz %	47	63,3	71	75



ATALA	JARDUERA	AURREKONTUA	
Administrazioa	Euskararen Ordenantzak	100.000	
	Erabilpen kanpaina	51.700	
	Euskara Batzordearen Argitalpenak	160.000	
	Euskalduntze Plangintza	2.015.764	
	Merkataritza	Merkataritza Euskaraz	470.000
Irakaskuntza/ Aisialdia	Bertso Eskolak	252.000	
	Udako Kanpaldiak	150.000	
	Bideoteka Zerbitzua	60.000	
	Matrikulazio Kanpaina	12.000	
	Bertso / Ipuin lehiaketa	97.500	
	Euskarazko Produktuen Katalogoa	169.000	
	Familia	Giroa Euskalduntzeko	85.000
	Kultura	Turismo Argitalpena	7.000
		Herrietako Ekitaldiak	2.362.000
	Dirulagutzak	Langabetuei / UEU	100.000
Ikerketa	Kale neurketak	72.000	
	Bulego materiala	Euskarri Informatikoa	15.000
Azpiegitura	Hornidura Gastuak	10.000	
	Xorroxin	285.125	
	Ttipi-ttapa	1.318.155	
	Langarra	618.575	
	Euskaltegia	978.145	
Aurrikusi gabekoak		200.000	
	GUZTIRA	9.720.964	

Zein dira Euskara Zerbitzuko lan ardatzak?

- Hiru lan-ardatz biltzen ditu:
- 1) Euskararen normalizaziorako ekimenak planifikatu, antolatu eta gauzatu.
 - 2) Herritarrentzat zerbitzu ego-kia eskeini.
 - 3) Euskalgintzan antolatzen diren ekimenen laguntzaile, dinamizatzaile eta bultzatzaile izan.
- Gizarte bizitzan orohar eta gizarte esparru ezberdinetan zehazki euskara ohiko komunikazio hizkuntza bihurtzea da helburu nagusia.**




Euskara teknikaria

Zein da Malerreka-ko irakaskuntzaren egoera eta bilakaera

Heldu den hilabetean lehenbiziz eskolatuko diren hau-

rrendako matrikulatzeko epea idekiko da. Ikus ditzagun 1992-

93 eta 1997-98 ikasturteen arteko aldaketa joerak:



DONEZTEBEN

H.E	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza						DBH				Guztia
	3urt	4urt	Surt	1.	2.	3.	4.	5.	6.	1.	2.	1.	2.	
A	1	1	1	1	3	3	5	8	7	5	11	11	8	66
B	5	2	7	4	7	12	12	2	11	-	-	-	-	62
D	24	20	27	13	14	16	21	16	24	45	49	58	32	359
ORO	30	23	35	18	24	31	38	26	42	50	60	69	40	486

Euskara udaberri



Udako Kanpaldiak

Nafarroako hainbat Euskara Zerbitzuz duela hiru urte hartu genuen kanpaldiak antolatzeko erabakia. Zertaz? euskaraz disfrutatzeko aukerak zabaltzeko, euskararen erabilera areagotzeko, harreman berrietako hizkuntza euskara izateko, bertze euskalkiak ezagutzeko...

Noiz?

Uztailaren 13tik 20ra
Uztailaren 20tik 27ra
Uztailaren 27tik abuztuaren 3ra
Abuztuaren 3tik 10era

Euskara Merkataritzara

Zerbitzu gehienak Donezteben biltzen dira eta horrez gain, gaztelera aritzeko joera handia dago zerbitzuetan. Establezimenduetako enplegatuena %75 euskalduna da, baina alfabetatua %22.

Honek zer erran nahi du? Zerbitzariak idazteko gaztelera erabiliko duela ziurrenik baina, zertaz? Mankomunitateak **ITZULPENAK** eskeintzen ditu **URTE GUZTIAN BARNA** eta **DOHAINIK** da.

Merkataritzako idazki mota guztiak egiten dira. **NO-RA JO?**

Euskara Zerbitzua (Esther Mugertza)

Tfa: 45 17 46

Faxa: 45 17 70

Merkatarien k. 27, DONEZTEBE

Zure establezimenduko publizitatea egiten ere lagunduko zaitugu, jo lasai Euskara Zerbitzura.



**Merkataritzan
Ideki Ateak
Euskarari**

Zerbitzuko eskeintza

Zein adin talde?
3-11 urteko umeak
12-16 urteko umeak


Zenbatetan?
Ume bakoitzeko 13.000 pta

Plazak
30 umeendako plazak erre-
serbatuta daude.

Informazio gehiago:
Mankomunitateko Euskara
Zerbitzuan (451746 telefonoa).

Natur Kirolaz euskaraz gozatu

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Euskara Zerbitzuak euskara taldeekin batera



lehenbizik antolatu ditugu aste-
bukaeretako irteerak.

Noiz izanen da lehen irteera?
Maiatzaren lehen asteburuan, 2an
eta 3an.

Norendako?
14 urtetik goitikoendako.

Zenbat?
7.300 pezetetan (afaria, gosaria,
bazkaria, lotokia, aseguruua barne).

Zer egiteko?
Egun batean rafting eta hurrengo
egunean izena emandakoak auke-
ratutakoa (zaldia, piragua,...).

Informazio gehiago:
Malerrekako Euskara Zerbitzuan
(451746 telefonoa).

HERRIA	TOKIA	EGUNA	ORDUA
Beintza-Labaien	Eskola	Astelehena	17:00
Narbarste	Eskola	Asteartea	16:30
Ituren	Eskola	Asteartea	18:15

Bertso Eskolak

97ko urrian martxan hasitako
hiru eskolak ikaste-lanetan da-
rraite, horrela eraturik:



Matrikulazio kanpaina

Azken urteotako esperientziak erakutsi digu hezkuntza eskaintzaren barnean erdu bakar batek bermatzen duela euskaraz eta gaztelaz aritzeko gaitasuna: D ereduak., 1993an Euskal Herriko Unibertsitateak eta berriki Nafarroako Gobernuak egindako ikerketek erakutsi dute D ereduan iakstitalakoak, euskaraz ezezik gaztelaz ere errendimendu hobea dutela orokorrean. Apirilaren 1ean hasiko den Eskolatze garaian seme-alabak euskarazko ereduan

matrikulatzeko kanpaina izanen da, hain zuzen ere.

Bideoteka Zerbitzua

Donezteben kokatutako Herri Liburutegian euskara zerbitzuak hainbat euskarazko bideo paratu ditu. Liburuekin egin ohi den moduan, bideoak mailegu moduan uzten dira. Arrakastatsua izan direnez, 25 bideo berri erosi dira.



Dirulaguntzak

1.- Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak euskaldundu nahiz alfabetatu nahi duten guraso langabetuei matrikularen erdia ordaintzen die.

Gainera, gurasoentzako ikastaro bereziak antolatzen ditu euskaltegiak: iraupen laburrekoak, gurasoei egokitutako ordutegian,...

Informazio gehiago nahi baduzu deitu Euskara Zerbitzura (451746) edota Euskaltegira (451555).

2.- Malerrekako Mankomunitateak euskaldundu



nahiz alfabetatu nahi duen ikasle langabetuari matrikularen ordainketan laguntzea erabaki du.

Euskalduntzea eta alfabetazeak euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan, berebiziko garrantzia duelako; eta helduak dira etorkizuna eraikitzeko gaur egungo erreferentzia. Hau dela bide, lan hori erreztu eta bulkatu nahi du Malerrekako Mankomunitateak. Hortaz, euskara ikasi ahal izateko diru zailtasunak dituzten ikasle langabetuei ahalik eta traba gehienak

Langabezia bazea euskaraz trebatzea merkeagoa da

kendu eta bidea errezteko neurriak hartuko ditugu.

Zein dira euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak Euskal Herrian

1996KO SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTAREN DATUAK

Euskal Herriko ia bi hiritarretik bat euskara ikasteko eta euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzearen alde dago.


Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeari buruz biztanleriak dituen jarrerak aztertzeke, hainbat alderdi hartu dira kontuan, hala nola: hezkuntza-sisteman, herri-administrazioan edo komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko hartutako neurriei buruzko iritziak, seme-alabak irakasteredu elebidunetara bidaltzeari buruzkoak, etabar...

Nortasunarekin bezala, euskara sustatzeko neurriei dagokienez desberdintasunik garrantzitsuenak jatorriaren eta hizkuntza-gaitasunaren araberrakoak dira.

Ia hirutik birentzat ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea

Orokorrean aldeko iritzi gehien bildu dituzten neurriak gazteenen euskalduntzeari buruzkoak dira. %63arentzat «ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea»; ondoren herri-administrazioan eta komunikabideetan euskara sustatzeari buruzkoak, %60aren ustez, «Euskal Herriko administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea» eta %42aren iritziak «Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiak programa askoz gehiago izan beharko lituzkete euskaraz».

Hezkuntza-sisteman seme-alabentzat zein irakasteredu nahi den galdetuta, Euskal Autonomi elkarterko ia hiritar



guztiek (%82) euskara hutsezkoa aukeratu dute. Iparraldean eta Nafarroan ia erdiak (%42) euskara hutsezkoa hautatu du.

Euskal Autonomi Elkarterko eta Iparraldeko proportzioak Euskal Herri osoan jasotako en antzekoak dira. Nafarroan,

ordea, euskara sustatzearen aurkako jarrera azaltzen dutenen portzentaia askoz handiagoa bada ere (%32), aldeko jarrera adierazten dutenena baino txikiagoa da (%38).

Interesgarria da euskararen erabilera sustatzeari buruzko

jarreraren araberrako desberdintasunei behatzea. Euskara ikasteko arrazoen artean, politikoak eta kulturalak nabarmentzen dira euskara sustatzearen aldekoen artean, eta aurka daudenen artean, ostera, lan egiteko beharra.



✓ *Lanbide Sarrerako Programak:*

- Soldadura eta Galdaragintza
- Bulego eta saltetxe txikirako laguntzailea.
- Lanbide Heziketa Egokitua.

✓ *Erdi Mailako Heziketa Zikloak:*

- Administrazio-Kudeaketa.
- Mekanizazioa.
- Jarduera Fisikoak eta Kirol Jarduerak Ingurune Naturalean Gidatzea. (Ikasleentzat egoitza).

✓ *Goi mailako Heziketa Zikloak*

- Administrazioa eta Finantzak.

✓ *Batxillergo Berriak:*

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologia.

✓ *U.B.I.*

✓ *Administrazio eta Gestiorako Batxillergoa (2. maila).*

*Izena emateko epea:
martxoaren 31tik, apirilaren 24ra.*

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa

• ELIZONDO •

Matrikulatzeko epea:
Martxoaren 30etik
apirilaren 24ra

© 580707

ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!

EUSKALDUNA
XORROXIN
BERTAKOA



HITZA
IRRATIA
BIHOTZA

KONTZERTUAK

Apirilak 3, ortzirala. Etxalarko Eskola
Zaharretan, 10etan. **BORROKAN**

Apirilak 4, larunbata. Igantziko
Biltokin, 11tan. **ZUP**

Heldu direnak:

Apirilak 17, Lesakan
Apirilak 18, Beran
Apirilak 24, Iturenen
Apirilak 25, Arantzan
Maiatzak 2, Erratzun

LESAKAKO LIZENTZIA XORROXINENDAKO

ARETO-FUTBOLA



Txapeldunak eta txapeldunordeak elkarrekin, partidua akitu eta sariak banatu ondotik.

Argazkia: Karmele

Doneztebeko Titi Ostatua txapeldun

Finaleko luzapenean 6-5 irabazi zion Kaifas taldeari

TTIPI-TTAPA

San Jose egunean jokatu zen Baztan-Maleurrekako futbito txapelketaren finala. Final zoragarria jokatu zuten Doneztebeko Titi Ostatuak eta Kaifas tal-

deak, emozioz bete, joku ederrarekin eta kiroltasun haundiarekin jokatu, gainera.

Titi Ostatukoak 3-0 irabazten hasi ziren, baina Kaifasekoak berdindu ez ezik, aitzinetik jar-tzea lortu zuten (3-4). Halere, minutu baten

faltan berdindu zen partidua. Berdinketa haus-teko luzapena jokatu behar izan zuten eta hemen Titi Ostatua nagusitu zen. Azken emaitza, 6-5.

Finala baino lehen, hirugarren eta laugarren postua erabakitze

norgehiagoka jokatu zuten Arraioz eta Legasako Xanpale taldeek. Honetan baztandarrak nagusitu ziren, 5-3.

Goleatzaile onenaren saria Kaifas taldeko Manuel Bergarak eskuratu zuen. Erregularitateari emandako saria

Xanpaleko Asier Hermandorenarentzat izan zen eta atezainik onena, Legasako talde bereko Pedro Miguel Castilla izendatu dute. Titi ostatuak, txapelketa irabazteaz gain talde kirolzaleenari emandako saria eskuratu du.

Kulturkari

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA

☎ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...



*Bertizarana
Tailerrak*

ESTRUKTURA METALIKOAK
ATEAK
BARANDA ETA FORJA
ARTISTIKOAK

☎ 948 592 243 • NARBARTE

Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Piztina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8
LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)



Tel. 948. 63 10 03
Mug.: 929 01 59 23

GOIZUETA

Artea eta Kultura programa prestatu du Udalak

Bestalde, Auzitegi Gorenak, euskaraz bizitzea debekatu dio herriari

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin Udalak urtero-urtero antolatzen duen Artea eta Kultura kanpainaren egitaraua prestatu dute dagoeneko Herriko Etxean, bata baino bestea interesgarriagoak diren sei ekitaldi osatuak.

Apirilaren 18an Mikel Urdangarin abeslariak eta bere taldeak eskeiniko duten kontzertua da emanaldien zerrenda irekitzen duena. Handik astebetera, apirilaren 25ean, Alemaniako Oihan Beltzean barrera Ander Olaizolak egin duen bidaiaren berri emanen du ehundaka diapositiba erabiliz horretarako.

Maiatzera igaroz

esan, Nafarroako Gazte Kontseilutik datorren *Ostiral gaueko sukarra* izeneko erakustaldia egonen dela Gaztetxean ikusgai hilaren 8tik 10era. Sexu eta drogarri buruzko joku didaktikoa da hau. Gaia boro-biltzeko, Luis Elberdin sexologo ospetsuak *Gazteak eta sexualitatea* izenburua daraman hitzaldia eskeiniko du maiatzaren 8an.

Festaurreko asteburua aurten ere herriko txikienei zuzenduta egonen denez, abuztuaren 8an 'Detraka' taldearen eskutik jaialdi ikusgarri bat izanen da plazan. Hurrengo egunean, berri, fanfarre bat ekarriko da egun guzira. Udazkenean ospatuko den organo kontzertu

batekin bukatuko da aurtengo Artea eta Kulturaren egitaraua.

Aipatutako guziaz burutu ahal izateko, 225.000 pezetako dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak. Aurrekontua 530.000 pezetakoa denez, gainerakoa, Herriko Etxeko kutxetatik aterako da.

Euskara hutsean aritzeko debekua

1993ko otsailaren 19an euskaraz funtzionatzeko akordioa hartu zuen korporazioak Euskararen Normalizaziorako Ordenantzak onartuz eta UEMAn sartuz. Nafarroako Auzitegi Gorenak deuseztatu egin du udalbatzak ahobatez hartutako akordioa, gaur egungo le-



Olaizola II txapelkun Mungian

Aimar Olaizola eta Auxkinentzat izan da aurtengo Mungiako Trobika txapelketa, Arroita-jauregi eta Azkarate bizkaitarren kontra jokatu-tako finalean. Euskal Herriko afizionatu onetsuenak Mungiako torneo honetan partaide ziren arren, zailtasun gehiegirik gabe nagusitu zen bertan aipatutako bikote gaztea. Bizkaitik ekarritakoarekin 46 txapel omen dauzka etxean Aimarrek, eta berak esan zigunez, beste batzuk lortzeko asmoa ba omen du oraindik. Horretarako aukera berri bat izanen du laister, Nafarroako txapelketaren finala jokatu baitu Almandozekin batera egun batzuk barru.

gediaren kontrakoa dela argudiatuz. Auzitegiak dioenez, Udalak bi hizkuntzetan funtzionatu dezake, baina euskara hutsean ez. Kontu-

tan hartu behar da, erdara eskatzen duten herriarren eskubideak errespetatuko direla garbi aski adierazten dutela udal ordenantzek.

ARESO

Sokatira taldea Euskal Herriko txapelen bila

680 kilotan gailendu zen Beteluko saioan

JUANA M^a SAIZAR

Euskal Herriko go-ma gainera sokatira txapelketako saiorik politenetakoa ikusteko aukera izan zen Beteluko pilotalekuan martxoaren 15ean. Aresok bo-

rrorarik haundiena Beti Gazterekin izan zuen. Aresok irabazi zuen gizonetako pisu haundian, 680 kilotan. Bi jardunaldi jokatu direnean Areso bigarrena da 9 punturakin. Hirugarren jardunaldia apirilaren 19an



Pisu ezberdinetan ederki moldatzen ari dira aresoarrak

Argazkia: Aitor

jokatuko da Getxon. ❖ **Usoa elkartea** martxoaren 31 baino lehen ehiza postuak garbitu behar direla jakinarazi du. Ehiza denboraldia pasa eta oraindik postu

batzuk zikin segitzen dute.

❖ **Bake-epaile** berria, Eva Gurutzarri Pellejero izango da eta ordezkioa Josetxo Goikoetxea, martxoaren 16an ospa-

tutako udal batzarrean onartu zenez.

❖ **Sendabelar** ikastaroa jarri nahi da martxoaren Aste Santua pasatuta. Ogidenda eta Sastinean apunta daiteke.

Mendialdeko Abesbatzen topaketa burutuko da larunbat honetan

Mezan herrikoak arituko dira eta gero kontzertua eskainiko dute

JOSEBA AZPIROZ

Larunbat honetan, martxoak 28, Mendialdeko Abesbatzen topaketa izanen da Leitzako elizan. Lizarrako Ereitzako abesbatza, Berako abesbatza, Igantziko abesbatza, Lesakako abesbatza, Etxarriko gazte abesbatza, Altsasuko Erkudengo Ama abesbatza eta herriko Jeiki eta Asketa abesbatzak bilduko dira, guzira 300 bat lagun.

Arratsaldeko 7etako mezan Leitzako bi abesbatzek elkarturik abestuko dute. 7.30etan abesbatzen kontzertua hasiko da. Lizarrakoek 'Hego haizeak' eta 'Gaus akelarre Gorbeia' abestuko dute. Berakoek 'Io ti voria' eta 'Maria Maialen'. Igantzikoek, 'An Irish Blessing' abestuko dute beratarrekin batera eta 'Ojos Brujos' eta 'Mas vale trocar' barkara. Lesakakoek 'Jacinto Chiclana' eta 'Elizatikankontenturaino'; Etxarriko gazteek 'Madona mia cara' eta



Eskolako ikasleek 80 pago aldatu dituzte Uztarlekun

Leitzako eskolako ikasleek larogei pago landare aldatu dituzte Uztarlekuko itxituran. Martxoaren 10ean 3. eta 4. mailakoak 50 bat landare aldatu zituzten, Udal langileek prestatutako zuloetan. Seigarren mailakoak berriz, martxoaren 17an aritu ziren eta hauek, zuloak egiteaz gain, 30 landare aldatu zituzten. Binaka edo hirunaka aritu ziren aldatzen eta, zuhaitz bakoitzaren ondoan, beraien izenak jarri zituzten. Bogarren mailakoak berriz, pago haziak erein zituzten gelan, pote batzuetan, eta ikasturtean zehar berrietaz arduratuko dira. Udala eta eskolaren arteko ekimen honek jarraipena izan dezan, 6 edo 7 urtetako plana egin dute, eskolaurreko hurrek prozesu guztia ikas dezaten (erein, aldatu, moarratu, garbitu...).

'Jaun haundia ikusi-azua'. Altsasukoek 'Barquillo de Sal' eta 'Matalas' eta Leitzako Asketa abesbatzak, 'Axuribeltza' eta 'Kanta

berri' abestuko dute. Azkenean, abesbatza guztiak elkarrekin arituko dira 'Jeiki jeiki', 'Euskaldunak' eta 'Herribera' kantatuz.

Mendialdeko Abesbatzen Topaketa hau behar bezala bukatzeko elkarrekin afalduko dute. Afalondoan ere ez da kanturik faltatuko.

flash

Elikagaien maneatazailerik agiria

ateratzeko azterketak ostiral honetan, martxoak 27, goizeko 8etan egingen dira Udaletxeko lehenengo solairuko gelan. Nortasun Agiria eta, izanez gero, zaharkitutako elikagaien maneatazailerik agiria aurkeztu behar dira. Agiria ateratzeko frogetan parte hartzeko, Osasun Etxean izena eman behar da. Agiri hau elikagaiekin kontaktu zuzena duten guztiak beharrezkoa dute.

Zinea

Martxoaren 27an, 10etan, 'Los Angeles Confidential'. Martxoaren 29an, 4.30etan 'Elegidos para el triunfo' eta 7etan 'L.A. Confidential'.

ARANO

Elektrifikazio lanak Hirurteko Planean sartuak

Aranoko Ipiñabar, Enazdi, Bordaberi eta Larratxuri inguruetakoa elektrifikazio lanak Hirurteko Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak. Lanen aurrekontua 12.738.930 pezetakoa da. Iruñeko inbertsioa 6.039.527, Iberdrolak 3.349.702 pezeta jarriko ditu eta gainerakoa ekarpen berezietan ordainduko da.

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrizko zaitugu!

Basa Kabi

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAKO gaina

Elizatz

ERLOJUTEGI BITXITEGIA

Nafarrentzat prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

Saholkularitza Saizola

Elgoien 2 - 1. • LEITZA
Tel.-Faxa: 948 510 620

- Mota guztietako aseguroak
- Autonomoak
- Mendi langileak
- Kontabilitateak
- Entrepesa desberdinen sortzea
- Errenta, IVA eta IRPF aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio eskaerak
- Abokatua dugu

Ordutegia: Astearte eta ostegunetan 18.30etatik 20ra
Larunbatetan 10.30etatik 12.30etara
Etorri zaitez edo ordua har ezazu 989 808 212 zenbakian

euromutua
SEGURO ETA ERREASEGURUAK PRIMA FINKOAN

BAZTAN

Bertsolari Txapelketaren finala apirilaren 5ean Elizondon

Arratsaldeko 4,30etatik aitzinera frontoian izanen da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala apirilaren 5ean burutu da Elizondoko frontoian, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera. Lerro hauek idazterakoan, Manolo eta Estitxu Arozena aita-alabek eskuratua dute finalean aritzeko txartela. Mikel Altzuart arizkundarra, igande honetan aritzeko auzoa zen Lizarran. Saio honetatik atera izanen da hirugarren finalista. Datorren igandean, martxoak 29, finalerdiko saioa jokatu da Zuraideko trinketean. Saio honetarako sailkatua dago Bittor Elizagoien arraioztarra. Bortz lehenbiziko sailkatzen direnak osatuko dute finaleko zortzikotea.



lazio finaleko protagonistak, tartean Elizagoien eta Altzuart baztandarrak zeudela. Aurten ere horretan saiatuko dira biak. Artxiboa

Elizondon egin beharreko lana honako hau izanen da: Ofizioka zortziko haundian eta ttikian hiruna bertso; barka bi punturi erantzuna eman eta hitza gaitzat emanda 6 puntu edo gehiagoko bertsoa osatu; ofizioka *Mainontzi* doinuari hiru bertso eta gartzelako lanean, gai

bati bi bertso bota. Ekitaldi honetarako 350.000 pezetako diru-laguntza eman du Balleko Udalak.

bati bi bertso bota.

Ekitaldi honetarako 350.000 pezetako diru-laguntza eman du Balleko Udalak.

Zenbait mendi aprobetxamendu enkante bidez saldu ditu Balleko Udalak

Gainekola inguruan, 947 haritz amerikanoaren aprobetxamendua Abarzuzako *Explotaciones Forestales Iriarte, S.L.* enpresak eginen du 13.069.810 pezetaren truke (hasierako prezioa baino ia 600.000 pta gehiago).

Erdizko-erreaka inguruan, 5.874 pagoren aprobetxamendua, be-

rriz, Etxalekuko *Azpiroz Aldaregia anaiek* eginen dute, 45.504.000 pezeta ordainduta gero (hasierako prezioa baino 69.000 pta gehiago). Nagusaroi alderdiko 792 pagoak, azkenik, Doneztebeko *Maderas Zabalak* aprobetxatuko ditu, 17.307.101 pezeta ordainduz.

Bertzalde, Otxasko inguruko oihan berri-tze lanak Fernando Arraztoak eginen ditu. Hiru Ha. terdi oihan berri-tzeaz gain, erretako zuhaitzak moztu eta zerrakura moldatuko du. Lan hauek, 5.874 pagoren oihan aprobetxamendurako hobetze planaren barnean eginen dira.

Astero kantuan Amaiurren

Zortzi-hamar lagun elkartzan dira astero, Amaiurko Gaztelu elkartearen, kantuan aritzeko. Bi, hiru eta lau ahosetan aritzen dira, tarte goxo bat pasatzea bertze helbururik gabe. Parte hartu nahi duenak aski du asteazken gaueko 9,30etan elkartera agertzea.

flash

Almandozko urak Hirurteko Planean

Almandozen ura hartzeko eta eramateko eta 140 metro kubiko ur-depositoa eraikitzeko lanak Hirurteko Azpiegitura Planean sartu du Nafarroako Gobernu Leku Administrazio Sailak. Lanen aurrekontu osoa 30.715.653 pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuaren inbertsioa 23.831.110 pezetakoa izanen da.

Lekarozko igerilekuetako

mantenimendua eta garbiketa zerbitzua uda honetan egiteko lehiaketa deialdia zabaldu du Balleko Etxeak. Arduradunetako batek, bederen, igeriketa eta sokorrista monitorea titulua izan behar du. Proposamenak apirilaren 16a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Zigako eliza

argitzen duten argi fokuar paratu dituzte, herriari itxura berezia emanez.

Almandozko

Benito etxea itxi zuten martxoaren 15ean. Honen berri zabalagoa hurrengo alean emanen dugu.

Kinto bazkaria

1960 kintoez (39an sortuak) apirilaren 4an ospatuko dute Amaiurren.

ARROPA DENDA



Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa

OPS Ingenieros S.L.

- Topografi lanak: Lur neurketak, balorzioak.
- Nekazal proiektuak: Bideak, ur depositok, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

La Asturiana

ostatu• jatetxea

Tfnoa: 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

Parkinson eritasunari buruzko jardunaldia ortziralean Elizondon

Gazte Asanblada, euskal presoen aldeko ekitaldiak burutzen ari da

JOSEBA IGARABIDE

Parkinson eritasunari buruzko Nafarroako II. jardunaldien barruan zenbait ekitaldi egingen dira Elizondoko Kasinoko gela nagusian ortziral honetan, martxoak 27. Bigarren aldiz egiten diren jardunaldi hauek Nafarroako herri ezberdinetan burutuko dira martxoaren 23tik 29ra, bakoitzean eritasunarekin lotutako gai ezberdin bat landuz. Honela, Elizondon, erakundeen laguntzari buruz arituko dira. Atsaldeko 8etan, *'Parkinsonek jotako pertsonen eskubideak'* gaiaz arituko da Teresa Gonzalez, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamenduko Aseguru Erregimen eta Osasun Prestazioen atalburua. Ordu laurden beranduago, *'Parkinsonek jotako pertsonarentzako laguntza soziala'* landuko du Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate Departamenduko kide batek. 8,30etan *'Ezintasunagatiko laguntzak Parkinsonek jo-*



Herriari buruzko erreportai zabala 'Pirineos' aldizkarian

'Pirineos' aldizkariaren martxo eta apirileko aleak Baztani buruzko erreportai zabala eskaintzen du, artikulua zabal eta argazki ederrekin hornitua. Artikulu horietako batean eskulangileei tarte berezia ematen zaie eta bertan ageri dira, bertzeak bertze, Santiago Oteiza Erratzuko kaikugilea (argazkian), Fernando Agerre almandoztarra edo Cesareo Soule arizkondarra.

Argazkia: Pirineos aldizkaritik bildua

takoentzat' izanen da Francisco Calvo, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Informazio zuzendariordearen solasaldiaren izenburua. Ondotik, mahaingurua egingen da. 9etan Laguntza-elkar-tei buruz arituko ondotik eta ekitaldiak akitzeko kontzertua izanen da Kasinoan berean.

Euskal Presoak aldeko ekitaldiak burutzen ari da Baztango Gazte Asanblada

Euskal Presoak Euskal Herriratzeko ekimena bultzatuz hainbat ekitaldi antolatu du Baztango Gazte Asanbladak. Gan den asteazkenean, Senideak erakundeak solasaldia eskaini zuen. Ortzegun

honetan, martxoak 26, goizeko 11tan presoen egoerari buruzko solasaldia emanen du Lanbide Eskolan Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Larunbatean, martxoak 28, kontzentrazio alaiak izanen da

Elizondoko plazan, arratsaldeko 6,30etan: malabarrak, zankoak, txalaparta, tinbalak...

Hurrengo larunbatean, apirilak 4, azkenik, *«animaleko murala»* egingen dute Elizondon.

BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO ARROPA

Trajeak, konjuntxoak, kamisetak, galtzak, jertseak...

KONPLEMENTOAK

Painueloak, gerrikoak, bitxikeriak...

ESKULANETARAKO MATERIALA

ZUGARRAMURDI

Eskual Titiriteroen 2. Topaketa asteburu honetan, Mikel eta Estefaren omenez

Larunbat eta igandean hainbat emanaldi eskainiko dira

MARGARI ETA KORO

Martxoaren 28 eta 29an Eskual Titiriteroen 2. Topaketa ospatuko da Zugarramurdi, Mikel eta Estefaren oroimenez. Bikote hunek Zugarramurdi sortu zuen Kilimiliklik taldea eta Eskual Herriko lehenbiziko txontxongiloen antzoki establea. Orain duela bi urte Mikel hil zen eta haren omenez Titiriteroen 1. Topaketa antolatatu zuen Kisulabe elkarteak. Orain duela 4 hilabete Estefa zendu zen eta 2. Topaketa hontan biak omendu nahi dituzte Kisulabekoek, egitarau zabal baten bidez.

Larunbatean, 4,30etan Mikel eta Estefak sortutako «Sorginak» antzezlanaren emanen du Kilimiliklik taldeak antzokian. 5,30etan «Zuk zeuk» haurrendako lana Behi Bis taldeak emanik eskolan. 6,30etan karrika antzerkia Golokaeta Korroska taldeekin. 7etan Bihar taldeak «Kli kla birzikla» haurrendako lana eskeininiko du eskolan.



Herriko Zaldunak Xabiererat

Gan den urtean bezalaxe, aurtan ere herriko zaldun talde bat animatu da Xabiererako bidaia zaldiz egitera. Bidaia Tuterako talde batek antolatutarik, denetara 40 bat zaldun elgarretaratu ziren. 160 km. egin dituzte honela banatuak: Tuterako-Zarrakaztelu, Zarrakaztelu-Xabier eta Xabier-Virgen del Yugo ermita. Argazkian Xabierren sartzen ageri dira.

8etan «Ububabel» antzezlanaren Taun Taun taldeak emanik pilotalekuan. Gaueko 11etan Txo Titeres taldearen «Txabi Band» ikuskizuna pilotalekuan. Ondotik kontzertua: Dusminguet, Deabru Beltzak eta Potato. Ondotik dantzaldia Kukumiku taldearekin. Sartzeak: 1.000 pta edo 40 lib.

Igandean, 11tan karrika antzerkia haurrendako: Taupada taldearen «Tandem Zirkus». 12etan Mine de Rien taldearen «Le pays bleu» ikuskizuna. 12,30etan Kukubiltxok «Kukubel» antzezlan berria eskeininiko dauku plazan. 1,30etan karrika antzerkia Kukuma taldearekin. Ondotik aperitifak

banatuko da, Oskar eta Aitziber trikitilariak animatua. 2,30etan zikiro jatea (piperrada, zikiroa, gasna, kafea, pata-rra eta puroa). Bazkarian Retablo de Figurillas taldea arituko da. Bazkarondoan, 4,30ak alderat kantaldia: Petti, Xabier Montoia, Jabier Mugu-ruza eta Gari bakarlar-riak arituko dira. Zikiro-

jatean eta kantaldian parte hartzeko sarreraren prezioa 2.500 peze-ta edo 100 liberakoa izanen da.

Asteburu osoan bi erakusketa zabalik izanen dire eskolan: bata Mikel eta Estefak egin-dako lanekin eta bertzea 'Centro de titeres'ek prestatua. Kisulabe el-kartekoak jakitera eman dutenez, kanpalekua ere izanen da komunekin prestatua.

Kinto bestak

Negua pasatuxea de-nez, jendeari besta egi-teko gogoia sartzen aro zaop. Azkeneko asteotan hiru kinto besta egin dira jadanik: Otsailaren 28an 1960koek egin zuten, martxoaren 14an 1937-38-39koek eta martxoaren 22an 1953tik 58 artekoek. Eta hori ez da dena, bada bertze talde bat *eztei-bestak* ospatzen ditue-na, Urdazubi eta Zuga-rramurdik 1969. urtean ezkondu zirenak ere ur-tero elkarrekin biltzen dira eta hauek otsaila-ren 7an egin zuten.

Okindegia Jatetxea

Uxoa

Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeaz errea. Goxo-goxoa!

Baztanen...

ESTHER FUNERARIA

LOREDENDA • GARDEN CENTER

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Eta Iruñean...

IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

24 orduko zerbitzua

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketaren finalak jokatu dira

Goi mailan Jean Behoteguy eta Germain Larzabal xapeldun

MIXEL ETA JACQUELINE

Herriko Etxeko Edantegiko mus lehiaketa otsailaren 13an hasi eta martxoaren 14an amaitu da. 39 bikote ortziralerok aritu dira eta, sailkapenaren arabera, finalak hiru mailatan jokatu ziren. Huna hauen ondorioen berri:

Goi mailan, xapeldun Jean Behoteguy eta Germain Larzabal. Xapeldunordeak, Kako Goyetche eta Jean Marie Pradere. Hirugarren, Jean Marc Aspirot eta Michel Etcheverry. Laugarren, Alain Tapia eta Jérôme Pradère.

Bigarren mailan, irabazle, Marthe Cebedio eta Madeleine Ithurria (iazko goi mailako xapeldunak). Bigarren, Pipo Eiharabide eta Jean Michel Niero.

Hirugarren mailan,



Jean Behoteguy eta Germain Larzabal xapeldunak sariak hartzen

irabazle Marie Hélène Bernet eta Isabelle Hiriart (iazko 2. mailako irabazleak). Bigarren, Xan Laplacette eta Basteën Garat. Hauei denek sariak banatu eta muszaleek bildots errearen jateko parada ukan zuten.

Basurde jatea Omordiako jangelan

Ohidurari jarraikiz Sarako ihiztariek basurde jatea antolatu dute martxoaren 7an Omordiako jangelan. 140 lagun bildu ziren, izan ihiztari edo labo-

rari. Hauek gomituak ziren bere eremuak ihiztatzeko uzteagatik. Aurten iraila eta urtarilaren artean hamahiru basurde hilak izan dira eta azpimarratzekoa da beratarren zakurren laguntza oso garrantzitsua izan dela.

Martxoaren 15eko hauteskundeak

Martxoaren 15ean, Akitaniako hauteskundeak iragan dira eta Pirinio Atlantikoko departamenduari dagokionez, 17 eserleku hautatzeko ziren. 9 eskuinak erdietsi ditu (2 CPNTk, 1 eskuin muturrak eta 6 RPR-UDFk) eta 8 ezkerrek (6 sozialistek eta 2 ezker anitzak). Abstentzioa % 39koa izan da.

Sarako emaitzak, berri, honela gelditu dira:

	Bozak	%
Eskuina		
CPNT	129	19,46
FN	38	5,73
UDF-RPR	185	27,90
	352	53,09
Ezkerria		
PS	62	9,35
Voix des Tr.	6	0,90
Gauche Pl.	25	3,77
	93	14,02
AB	139	20,97
PNB	79	11,92
Abstentzioa		58

HERRIKO ETXOKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin Guerendiaïn

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



Pierreseneoa

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



ZUBIRIA
MINDEGIAK


- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 581274



• Hileta artea

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

EZKONTZAK

JAIOTZAK

HERIOTZAK

Ander Mitxelena Otxandorena, Iruritakoa, martxoaren 1ean.

Laura Bikondo Elizalde, Iruritakoa, martxoaren 8an.

Beñat Konde Orube, Lesakakoa, otsailaren 28an.

Amets Campos Sagastibeltza, Leitzakoa, otsailaren 18an.

Ainara Antuña Zelaieta, Sunbillakoa, martxoaren 13an.

Antonio Benito Goñi Bengoetxea, Arizkungoa, martxoaren 9an, 90 urte.

Jesus Larretxea Agesta, Arantzakoa, martxoaren 9an, 66 urte.

Margarita Apeztegia Etxeberria, Lesakakoa, martxoaren 10ean, 84 urte.

Juan Telletxea Torre, Lesakakoa, martxoaren 11n, 74 urte.

Ignacio Sagastibeltza Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 2an, 96 urte.

Jose Martin Eraso Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 7an, 77 urte.

Antoni Olaizola Espelosin, Urdazubikoa, martxoaren 16an, 85 urte.

Jesus Larretxea Agesta, Arantzakoa, martxoaren 9an, 66 urte.

Piedad Gutierrez Iturria, Igantzikoa, otsailaren 15ean, 49 urte.

Josefine Tapia Galardi, Sarakoa, martxoaren 7an, 90 urte.

Michel Ordoki, Sarakoa, martxoaren 9an, 85 urte.

Marie Etchart-beheti Azarete, Sarakoa, martxoaren 11n, 98 urte.

Piedad GUTIERREZ ITURRIA berriki hila

Bere familiak, egun gogor hauetan hartu dituen doluminak bihotz-bihotzez eskertzen ditu lerrri hauen bitartez. Mila esker guziei.

Igantzi, 1998ko martxoan.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurrtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitzarako produktuez bete, emango dizugu.



Ex ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Kafe hauek denak...
**FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herrri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUE KAFE
XUABEA

DATUAK.....

❖ Gaupasa egunean, bestetan, eguberrietan eta horrelako egun berexietan ostatu bezala idekitzen badute ere, urtean zehar 20 lagun biltzen dituen elkarte da Kisulabe.

❖ Eskual Herriko Titiriteroen 2. topaketa antolatu dute asteburu honetarako Zugarramurdin.

❖ Handik eta hemendik etorritako antzerki, txontxongilo eta musika taldeek beren emanaldiak eskainiko dituzte, Kilimiliklik txontxongilo taldearen sortzaile izan ziren Mikel eta Estefaren omenez.

KISULABE ELKARTEA Zugarramurdi

“Euskal Herriko txontxongilo antzoki egonkor bakarra da Kilimiliklikena”

KISULABE ZER DA, OSTATUA, ELKARTEA...?

Kisulabe lehen zen ostatua eta gero jarri genuen elkarte bezala, duela lau urte. Egunguzia hemen egoten ginez, errentan hartzea pentsatu genuen, eta hementxe montatu genuen gure gaztetxea. Gaur egun 20 bat bazkide gara.

Ostatu gisa, bestetan, eguberrietan eta gaupasaren eguna bezalako egun berexietan bakarrik idekitzen dugu.

GAUPASAREN PRESTAKETAN ERE LAGUNTZEN DUZUE?

Gaupasa Akelarre elkarteak antolatzen du, eta gu ere elkarte horren barnean sartuak gara, ia herri guzira baita hor. Elkarte horrek herriko ostatu guziera eskatzen die sosa zerbait ematea egun horretarako. Kisulaberen ustez, ordea, Akelarre elkarteak ez du sosen beharrik, eta guk nahiago dugu ekitaldi kulturalen bat antolatzea herri guziarendako.

NOLA ANTOLATZEN ZARETE KULTUR EKITALDIKAK ETA OSTATUA UZTARTZEKO?

Ostatutik ateratzen dugun sosa bazkide guzientzako partitzen dugu eta gero sozio bakoitzak nahi duena ekartzen du, baina beti kulturarekin lotua den zerbait. Antzerkiak, kon-



«Kilimiliklikek beti obra bera antzeten du, Sorginak, Mikel eta Estefak sortua».

tzertuak, diapositiba emanaldiak...

Albert Pla ekarri genuen, Amaia Elozegi eta Esther Mugertza ere bai. Inurrategi anaiak bi aldiz izan dira....

TITIRITEROEN TOPAKETA BIGARRENEZ OSPATUKO DA ASTEBURU HONETAN. ZER MODUZKO HARRERA IZAN ZUEN LEHENBIZIKO EDIZIOAK?

Lehenbiziko Titirite-

roen Topaketak arrakasta handia izandu zuen, Mikel eta Estefa arrunt ezagunak zirelako mundu hortan. Kanpoko jende aunitz etorri zen, hemengo baina gehiago. Duela bi urte, Kisulabe Elkarteko partaidea zen Mikel hil zenean, lehenbiziko Titiritero topaketa antolatu genuen omenaldi gisa. Pentsatua ginuen bi urtero errepikatzea, eta aurten tokatzen zen. Orain duela lau hilabete Estefa hil zen, eta orduan biak omendu nahi ditugu.

MIKEL ETA ESTEFAK

SORTU TXONTXONGILO TALDEAK MARTXAN SEGITZEN DU GAUR EGUN ERE...

Bai, Kilimiliklik taldeak, gainera, Euskal Herrian egonkorra den antzoki bakarrean egiten ditu bere emanaldiak, hemen Zugarramurdin. Beti obra bera antzeten dugu, Sorginak, Mikel eta Estefak sortua. Eskoletara bidaltzen ditugu gutunak, eta haurrak eskursioneetan etortzen dire. Orain maiatz, apiril eta ekainean kasik egunero etortzen da talderen bat.

» *“Lehenbiziko Titiriteroen Topaketak arrakasta handia izan zuen, Mikel eta Estefa arrunt ezagunak zirelako mundu hortan”*

SARAKO IZARRA Rugby taldea



SENIOR Taldea (Talde nagusia)

Jokalaria	Postua	Adina
Teillechea Alain	Pilier	29
Segure Jean Louis	Pilier	23
Hiriart Dominique	Pilier	24
St Martin Jean Michel	Talonatzailea	22
St Martin Bernard	Talonatzailea	35
Etcheverria Pantxo	2. lerroa	21
Uhart Jeannot	2. lerroa	34
Hiriart Andde	2. lerroa	26
Amorena Jean Philippe	3. lerroa (kap.)	28
Iribarren Jean François	3. lerroa	27
Sallaberry Mathieu	3. lerroa	23
Barneix Stephane	3. lerroa	22
Irazoqui Jean Michel	3. lerro zentrala	26
Lasaga Philippe	3. lerro hegala.	27
Vignolle Frederic	Melée 1/2	29
Etcheverry Jean	Melée 1/2	25
Pradere Jerome	Zabalpen 1/2	21
Bidart Serge	3/4 zentrala	38
Etcheverry Michel	3/4 zentrala	25
St Martin Pello	3/4 zentrala	22
Quittic Christophe	3/4 hegalekoa	26
Dreux Sebastien	3/4 hegalekoa	38
Miremont Pierre	3/4 hegalekoa	26
Pradere Jean Marie	Atzelaria	26
Dolosor Daniel	Atzelaria	21

SENIOR Taldea (Bigarren taldea)

Lamothe Alain	Pilier	24
Simonet Stephane	Pilier	26
Touyaron Brice	Pilier	25
Etcheveste Andde	Talonatzailea	23
Etcheveste Ramuntxo	Talonatzailea	32
Elizagoien Henri	2. lerroa	24
Errandonea Daniel	2. lerroa	23
Loustaunau Alain	2. lerroa	34
Vella Mickaël	3. lerroa	21
Tapia Xabier	3. lerroa	26
Jaureguiberry Totte	3. lerro zentrala	35
Berrouet Ramuntxo	Melée 1/2 (kap.)	25
Etchegarray Claude	Zabalpen 1/2	30
Martin Bruno	3/4 zentrala	26
Loustaunau Beñat	3/4 zentrala	27
Aguerre Stephane	3/4 zentrala	28
Berrouet Beñat	3/4 hegalekoa	22
Sahastume Cristophe	3/4 hegalekoa	29
Olhagaray Emmanuel	3/4 hegalekoa	31
Zunda Xabier	Atzelaria	23
Bats Serge	Atzelaria	33
Larronde Pascal	3. lerroa	

Senior mailako bi taldeak, elkarrekilan

Izarra rugby taldeak mundu bat mugiarazten du Saran

Senior edo helduen mailan aritzen direnak bakarrik kontuan hartuz, 51 lagun ari dira Sarako Izarra rugby taldean. Haueri, adinez gazteagoak diren taldeetan eta *xaharren* taldean ari direnak gehitu behar zaizkie.

Helduen mailan, bi talde dituzte. *Premiere* edo talde nagusia eta *Reserve* edo bigarren taldea. Sarako Izarra-koak Côte Basque txapelketan ari dira, 2. taldeko B multzoan, bertze zortzi ekiparekin batera: St Jean de Marsacq, Lesperon, Herm, Lit et Mixe, Pomarel, Amou, Povillon eta Urruña. Hau idazterako orduan, talde nagusiak 14 igandez jokatu du, 8 partida irabaziz, 5 galduz eta 1 berdinduz. Klasementan hirugarrena da eta dagoeneko 31 lagunek jokatu dute *Premiere* taldean. Bigarren taldeari dagokionez, partida guziaz irabazi ditu eta klase-mentaren buruan da.

Entrenatzailea Ramuntxo Berrouet da eta laguntzailea, berriz, Michel Brisson. Honen gainera, lan garrantzitsua dauka, rugby eskolako

arduradun nagusia baita. Entrenamanduak, astearte eta ortziral arratsetan egiten dituzte.

Basurdeen zalapartak zelairik zela

Sarako rugby taldea 1972. urtean sortu zen. Sarako Izarra elkartearen gerizpean. Lehen partidua Saran bertan jokatu zuten, orain piztina eta errebotea den lekuan, 26-1 galduz. Dena dela, oroitari zi behar da ez zela lehen aldian Saran Rugbya jokatzeko zela. 1920an ere ezagutu zen rugbya herrian, baina ez luzaz, erraiten denaz... «*Bortizki aritu omen ziren*» dio Martin Goyeneche lehendakariak «*eta ondorioa debekua izan zen, baina ez hori bakarrik, hortik aintzina Sarako rugbylariak basurdeak deituak izanen ziren*».

1974an Euskal Herriko Xapelketan hasi ziren mailarik apalenean. Lau urteren buruan finalerat ailegatu ziren, Kanboren aurka galduz. Geroztik xapelketa aunitzetan beraien joku ederra erakutsi dute saratarrek.

Klubaren datuak



Elkartearen izena:
SARAKO IZARRA
Sorrera: 1972
Helbidea:

Animoinea Zelaia
64340 SARA
Tel.: 0559542775

Aurrekontua: 150.000 libe-
ra (15 milioi libera xahar)

Lehendakaria:

Martin Goyeneche
Idazkari-diruzaina:
Jean Gaudet.

Kideak: Gratién Barrene-
che, Pierre Behoteguy, Evelyn-
ne Etchegaray. **Junior:** Pan-
txo Ichouribehere, Michel Or-
doqui, Lasaga eta Jean Paul
Guilsou.

Sekzioak:

Senior (1. eta 2. taldea), ju-
nior, mini-poussin, poussin,
Benjamin eta minime.

Honetaz gain, **xaharren edo
beteran** taldea ere bada, be-
re zuzendaritza bulegoare-
kin: **Lehendakaria:** A. Lous-
taunau. **Lehendakariordea:**
Michel Goyeneche. **Idazka-
ria:** Joseph Irazoqui. **Diru-
zaina:** Joseph Jaureguiberry.
Kideak: Christian Etchega-
ray eta Michel Guedes.



Sarakoekin batera, Senpere eta Azkaingo rugbi-
lariak ari dira junior mailan

**Gazteenek Sarako Basurdeen
etorkizuna segurtatzen dute**

1987. urtean Sarako Izarra Euskal Herriko eta Frantziako xapel-dun-ordea (3. seriea) suertatu zen. Hiru urte beranduago, Frantziako xapeldun izan ziren, Bidarteren aurka irabazitako partiduez. Halerre, azken hogeitau urteotan dena ez da goxoa izan. 1981 eta 1982 urteak ilunak suertatu ziren Sarako Izarra rugbi taldearentzat: jokalar gutti eta ondorio txarrak. Orduko hura berriro ez gertatzeko, adin ttikiko taldeetan lan gogorra burutzen ari dira aspaldiko urteotan, Ba-

surdeen etorkizuna segurtatzeko asmoz. Rugbi eskolak urtero urtero kimu berriak sortzen ditu, sei urtetarik hasita.

Junior mailako gazteak bi taldetan banaturik daude, batean 15 eta 17 urte artekoak ari dira eta bertzean 17 eta 20 urte bitartekoak. Maila honetan, Sarakoekin batera Senpere eta Azkaingoak ari dira (ondoan beltzean ageri direnak dira saratarrak).

Ttikienak, berriz, larunbatero entrenatzen dute Animoineako zelailan.

JUNIOR Taldea

Jokalaria	Postua
Lasaga Eric	Pilier
Mihura Pascal	Talonatzailea
Goyeneche Raphael	Pilier
Barandiaran Patxi	2. lerroa
St Martin Sebastien	2. lerroa
Azarete Jakes	3. lerro hegai.
Olaizola Jerome	3. lerro hega.
Desclause Nicolas	3. lerro zentr.
Salha Jerome	Melée 1/2
Sathicq Pascal	Zabalpen 1/2
Bessonart Iban	Hegalekoa
Bergara Jerome	Zentrala
Ado Emmanuel	Zentrala
Ichouribehere Christophe	Hegalekoa
Garat Beñat	Atzelaria
Ithurry Patxi	Hegalekoa
Cornee Sebastien	Hegalekoa
Olhats Bertrand	Atzelaria
Goyenaga Franck	Hegalekoa
Etcheverria Jean Baptiste	2. lerroa
Lamarque Nicolas	Pilier
Jorajuria Peio	Hegalekoa
Taberna Gorka	Pilier
Labandibar Mattieu	Hegalekoa
Mhur Sebastien	Zabalpen 1/2
Van Meer Nicolas	2. lerroa
Berrouet Mathieu	Pilier
Lastra Jean Baptiste	Pilier
Borda Xabi	2. lerroa

Entrenatzaileak: Gracy Marc, Garat Michel eta Garate Frederic. **Zuzendariak:** Lafon Marc, Ichouribehere Pantxo eta Darrigue Beñat

Ttikienak

Jokalaria	Adina-maila
Mickaël Itoiz	8 (mp)
Iñaki Petin	7 (mp)
Eric Etchegaray	7 (mp)
Beñat Irazoqui	6 (mp)
Julen Paul	9 (mp)
Thomas Etchegaray	6 (mp)
Xabi Indaburu	8 (mp)
Sebastien Lasaga	6 (mp)
Sebastien Borda	8 (mp)
Fabien Goyenette	10 (p)
Jeremi Iparraguirre	10 (p)
Mathieu Albistur	12 (b)
Mathieu Brisson	12 (b)
Frédéric Aguirre	12 (b)
Joan Michelena	12 (b)
Paul Errandonea	12 (b)
Thomas Lastra	12 (b)
Gregory Elizalde	11 (b)
Iñaki Zumeaga	11 (b)
Joan Paul	11 (b)
Joan Zumeaga	14 (min)
David Nesprias	14 (min)
Xabi Ascaraga	13 (min)
Fabrice Iparaguirre	13 (min)
Olivier Lafitte	13 (min)



etarik hasita 14 urte bitartean hogeitabortz gaztetxo ari dira Izarraren izenean

AGENDA EGUNEZ EGUN

AGENDA PRAKTIKOA

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Martxoaren 27an**, ortzirala, "Exit" taldeak joko du Kasino ostatuan.

► **Apirilaren 3an**, berriaz, "Piztiak" erriberako taldeak bere disko berria aurkeztuko du Kasinon.

BERA

► **Martxamuffin jaia**, bihar ortzirala, arratsko 10etan Pui ostatuan, Hendaiako Skunk eta Britainiako Tagada Jones (Punkcore) taldeen eskutik.

ETXALAR

► **Apirilak 3**, ortzirala, Eskola Zaharretan, Borrokan beratarrek joko dute, 'Lesakako lizentzia Xorroxinendako' kanpainaren barnean. Arratsko 10etan.

IGANTZI

► **Apirilak 4**, larunbata, Biltoki elkartearen, Zup beratarrek joko dute, 'Lesakako lizentzia Xorroxinendako' kanpainaren barnean. Arratsko 11etan.

KONTZENTRAZIOAK

ELIZONDO

► **Martxoaren 28an** Elizondoko plazan, arratsaldeko 6,30etan, kontzentrazio alaiak egingen da, malabarrak, zankoak, tinbalak...

► **Apirilaren 4an** berriaz, animaleko murala egingen da Elizondon. Guztia, Euskal Presoak Euskal Herrira ekimenaren barnean.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA



Europako dirulaguntza lortu du TTIPI-TTAPA TB-ak

Cedernak, ordea, ez dio erantzun eskaerari

Nafarroako Gobernuak Europako Batasunean duen Ordezkaritzatik jakinarazi dutenez, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Batzordeak onartu du bere laguntza programetan sartzea TTIPI-TTAPA Telebistaren proiektua. Laguntzaren kopuru zehatza zenbatekoa izanen den ez dugu oraindik ezagutzen, baina dena dela, gauza segurua da martxoaren hondar egunotan jakinaraziko dutela. TTIPI-TTAPA Fundazioak aurkeztu duen proiektuak hiru atal desberdin biltzen ditu bere baitan: alde batetik

aldizkariak Lapurdin eta Nafarroan duen hedapena laguntzea; bertetik, Interneteko edizioa berritzea eta osatzea, eta azkenik, Telebista martxan jartzea.

Garai berean, 1997ko urrian, eskatu zitzaion dirulaguntza Cederna-Garalur agentziari ere. Honen bitartez bideratzen dira *Leader II* Programak gisa honetako proiektuentzat dituen laguntzak. Hala ere, eskaera egin zenetik 5 hilabete pasatu diren arren, Cedernak ez du argitu dirulaguntzarik emanen duen edo ez.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 8.200 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 171 pta./kilokoa.
- **Zerramak**: 95 pta./kilokoa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
- **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
Extra580
1.koa560
2.koa530
- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
Extra590
1.koa560
2.koa530
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 16.000 eta idixkoak 25.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak**:
Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal, Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE

DISKAK



«Larogeitamazapi»

Antton VALVERDE

ELKAR

Azken diska karrikaratu zuenetik hamaika urte pasa badira ere, naturalitatez eta bulla haundirik egin gabe itzuli zaigu Antton Valverde, berarentzat urteak igaro ez balira bezala. Izen ezagunak dituzten baina orokorrean aski gutti irakurriak izan diren J.A. Arze, Lizardi, Orixe, X. Lete, I. Mirande eta B. Gandiagaren sinadura daramate diska berrirako auke-

ratu dituen olerki aberats eta oparoek. Umorea, maitasuna, herri-mina, laguntasuna edota esistentziaren inguruko erreflexio eta kezkek gazi-gozoki nahasten dira poesia hoietan, eta Valverderen ahots beroaren bidez barneratzen zaizkigu zuzen-zuzenean. Norberaren barruan, aparteko hutsune bat betetzeko gai dira hamalau kanta hauek.

JAKIN BEHARREKOAK

Zerbitzu teknikoak eta elektrogailuen konponketak



Konponketa bat egin aurretik aurrekontua eskatu.

Jende frankok galdegiten dio bere buruari etxeko zernahi elektrogailu konpontzera etorri den teknikoak gehiegi ez ote dion kobratu. Zailantza guziak uxatzeko modu hobereana legeak zerbitzu teknikoaren jokabideari buruz zer dion begiratzea da.

Lehenik eta behin, ezberdindu behar ditugu markakoak diren eta ez diren Zerbitzu teknikoak. Markakoak ez direnek gisa guzietako elektrogailuak konpontzen dituzten bitartean, markakoei euren etxeko aparatuak soilik moldatzen dituzte.

Gure eskubideak

Konponketa bat egin aurretik, ez atzendu aurrekontua eskatzea, eta ezta ondoren behar den bezalako faktura esigitzea. Zerbitzu teknikoaren izena, gurea, elektrogailuaren marka, konpontzeko arrazoia eta bertze zerbait ezaugarri bildu beharko

dira bertan, baina batez ere garrantzitsua da aurrekontua egin eta konponketa akitzeko datak paratzea.

Konponketa egiten ari direla prezioa garestitzen duen zerbait suertatzen bada, guk

Konponketa egiten ari direla prezioa garestitzen duen zerbait suertatzen bada, guk idatziz onartu beharko ditugu aldaketa horiek.

idatziz onartu beharko ditugu aldaketa horiek.

Ordezkatu beharreko piezei dagokienez, bertalde, pieza berriak erabili beharko dituzte guk kontrakoa erabaki ezean. Gainera gogoan eduki behar dugu elektrogailua saldu eta hurrengo zazpi urteetan hura konpontzeko piezak 30 eguneko epean izan behar dituztela nazioarteko elektrogailua bada, eta 15 Espainian egina bada.

Gure elektrogailuari egin dako edozein konponketak hiru hilabeteko garantia osoa du, eta ezingo digute deus kobratu epe horren barreran berriz izorratuko balitz.

Mikel BEZUNARTEA
IRATXE

Kontsumitzaileen Elkarteak

LIBURUAK



«Erretiradako trenak»

Martin UGALDE

EREIN

Ipuingintzako maisu baten azken lana da zazpi istorio labur biltzen dituen liburu hau. Martin Ugalde andoaindarrak estilo propio eta berezi berezia du; hitzek, adjetiboek eta aditzek, guztiek dute pisuzko arazoiren bat esaldi labur horietan egoteko. Dauden lekuan, azaldu nahi digun egoera, paisaia edo gertakariaren gakoa dira beti.

Biolentziaren tentsioa da zazpi kontakizun hauen azpian agertzen den osagai nagusia. Batez ere gerra zibilaren tragediari lotuak ageri zaizkigu ipuinetako pertsonaiak, izan ere, idazleak arras hurbiletik bizitu baitzituen gatazkaren ondorio latzak.

Ipuin guziak fikzio badira ere, zeinbaitzutan gertakari erreala antzematen dira.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

LEITZA

► **Martxoaren 27** arratseko 10etan "L.A. Confidential". Zine beltza.

► **Martxoaren 29** arratsaldeko 4,30etan "Elegidos para el triunfo" eta 7etan "L.A. Confidential".

BERTSOAK

ELIZONDO

► **Apirilaren 5ean** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala izanen da Elizondoko Pilotaplazan arratsaldeko 4,30etatik aitzinerat.

MENDI IRTEERAK

ELIZONDO

► **Martxoaren 29an** Baztango Mendigoizaleak Belate-Leitza ibilbidea eginen dute.

► **Apirilaren 5ean** Baztango Mendigoizaleak Hondarribira izanen dute irteera.

► **Martxoaren 29an** Dendai-Azaldegi ibilbidea eginen dute Ikastolako Mendigoizaleak.

► **Apirilaren 5ean** Ikastolako Mendigoizaleek Itsusiko haitzetera joanen dira Lezetatik.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Martxoaren 23tik 29ra** Arantza, Sunbilla, Lezaun eta Goizuetan.

► **Martxoaren 30etik apirilaren 5era** Iganzi, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizuetan.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Bartolo Agerralde zugarramurdiarrik martxoaren 27an beteko ditu urteak. Zorionak zure lankideen partetik.



Pello Elzaurdia beratarrik apirilaren 8an beteko ditu urteak. Zorionak emaztea eta alabaren partetik. Muxu handi bat.



Maitane Saralegi Izagirre leitzarrak 9 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak gurasoen eta Beñat anaiairen partetik.



Amaia Oiarzabal Elizegi goizuetarrak martxoaren 25ean 2 urte bete ditu. Zorionak!!!



Martina Loiarzte Arozena goizuetarrak urteak bete ditu martxoaren 16an. Zorionak bere senar eta seme-alaben partetik.



Ainhoa Arretxea narbartearrak 7 urte bete ditu martxoaren 11n. Zorionak bere familiaren partetik.



Estibalitz Urra Garro lesakarrak 23 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak Angel eta familiaren partetik.



Amparo Garro Iparragirre lesakarrak urteak bete ditu martxoaren 3an. Zorionak familiaren partetik.



Aritz Telletxea lesakarrak 8 urte beteko ditu martxoaren 27an. Zorionak guraso eta anaia Ikeren partetik.



Iratxe Labiano 8 urte beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak guraso, ahizpa Ixaso, ataxki, amaxi eta Lentejoren partetik.



Espe Anzi-zarek urteak bete ditu martxoaren 20an. Zorionak senarra, Gazarri, Iزارo eta Lesakako familiaren partetik.



Julen Juankorena sunbildarrik urtea beteko du martxoaren 12an. Zorionak guraso, Jon, Xabi eta Lesakako familiaren partetik.



Amaia Lukanbio aranztarrak 5 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu bat etxekoien partetik.



Amairko Jaureneko Asuncióni zorionak bere familiaren partetik, martxoaren 25ean urteak bete dituelako.



Maite Iraguik 10 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak eta muxu bat Vanessa eta hirukote berezi baten partetik. BSB.



Urdazubiko Unai Etchartek martxoaren 12an bete ditu 9 urte. Zorionak zure familiaren partetik.



Marta Arroabarrenak 18 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak Marta! Mirenen partetik.



Miren Arregi donamariarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak bere familiaren partetik.



Juanjo Irazoki martxoaren 13an 27 urte bete ditu. Zorionak Sonia, Nuria eta familiaren partetik.



Mattin Irazoki lesakarrak martxoaren 4an bete ditu 22 urte. Zorionak Sonia, Nuria eta familiaren partetik.



Itziar Urriza elizondarrak 19 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



Ander Almandoi zorionak beroenak martxoaren 25ean urteak bete dituelako. Osaba, izeba eta lehen-gusinen partetik.



Beltran Ruiz lesakarrak 21 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak Nagore eta familiaren partetik.



Juanito Mazizior lesakarrak 64 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak Paola eta Jonen partetik.



Paola Oskoz Mazizior lesakarrak 3 urte bete ditu martxoaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



Jon Mazizior Juanenak 4 urte beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Eneko Inda Elizegi erratzuarrak 10 urte bete ditu martxoaren 25ean. Zorionak bere familiaren partetik.



Jaione Elizagoien Elizegi elizondarrak 7 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak bere familiaren partetik.



Joseba Inda Elizegi erratzuarrak 3 urte bete ditu martxoaren 18an. Zorionak bere familiaren partetik.



Saioa Oses Gainza beratarrik 6 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Loli Aranburu Arruti beratarrik urteak bete ditu martxoaren 22an. Amona, zorionak eta muxu handi bat Saioaren partetik.



Isabel M Irazoki beratarrik 36 urte bete ditu martxoaren 25ean. Zorionak senarra eta semeen partetik.



Aritz Ibarra beratarrik urtea beteko du apirilaren 24an. Zorionak Berako eta Etxalarko amaxi-aitaxiren partetik.



Josefa Agirre beratarrik urteak bete ditu apirilaren 6an. Zorionak eta muxu handi bat Nikolas eta Aritzzen partetik.



Marian Musgo beratarrik 5 urte beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak aita, ama eta anaia Jaberriren partetik.



Ainhoako Iban Arrufeari zorionak bere 21. urtebetetzean. Ongi ospatu, baina poliki-poliki. Iruñeko lagunen partez.



Naia Esnaola beratarrik 6 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak familiaren partetik.



Igor Gurrutxaga Errandona lesakarrak martxoaren 13an bete ditu 7 urte. Auniz urtez, familiaren partetik.



Francisco Arriada gartzaindarrak 34 urte beteko ditu apirilaren 6an. Zorionak eta pasa egun on bat. Zure arreba.



Jon Sein Osinagak 4 urte bete ditu martxoaren 20an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Jaimeren partetik.



Mattane Rodriguez Etxabide lesakarrak 12 urte bete ditu martxoaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat etxekoien partez.



Pollo 19 urte bete ditu martxoaren 22an. Zorionak Elizondoko granjako oilasko parrandazaleenari. Tasioeren partetik.



Alegiako Rikardo Inhaustik urteak bete ditu martxoaren 20an. Zorionak zure lagun baten partetik.



Matilde Ramosek 60 urte bete ditu martxoaren 20an. Zorionak familiaren eta, batez ere, bi iloben partetik. Zorionak Lili!



Irune eta Itsaso Elizagoien Bizente etxalartarek laister urteak beteko dituzte. Irunek 5 martxoaren 29an eta Itsasok 3 apirilaren 4an. Zorionak eta muxu bat gurasoen partetik.



Leire Urkiola leitzarrak martxoaren 19an 11 urte bete ditu. Zorionak trikitilari onenari, bere familia eta lagunen partetik.



Modesto Ordoqui Arburak 2 urte beteko ditu martxoaren 20an. Zorionak familiaren eta bereziki Raquel arrebaren partez.



Alex Elizondo Otxoteko lesakarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 3an. Zorionak zure familiaren partetik.




Aitziber Mindegia arraioztarrak 13 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak guraso, Mikel eta familia guziaren partetik.

Kalitatezko euskarazko formakuntza, **non?** Egi bihurtutako proiektu sendoa, **non?** Bere buruaren jabe den eskola, **non?** Betikoa eta Gaurkoa biak bat, **non?**


DBH **non?**

Labiaga Ikastolan

(non bertzenaz?)



BERA eta
LESAKAko
IKASTOLAK



Matrikula epea
zabalik

Labiaga ikastola

Tfno: 630172

bera@ikastola.net



<http://www.jalgi.com/>

Tantirumairu ikastola

Tfno: 637308

lesaka@ikastola.net

LOGSEKO BATXILERGOAK

Unibertsitate Ikasketa guztietarako, Arte Ederrak ezik.



D.B.H. (12-16 urtetan) A, B eta D Ereduak

LANBIDE HEZIKETA

- ☛ Goi Zikloak: ☞ Ekipo Industrialaren Mantenua
- ☛ Erdi Zikloak: ☞ Merkataritza
- ☞ Instalak. eta Mantenu Elektromek.
- ☛ Lanbide Sarrera: ☞ Elektromekanika

IZENA EMATEKO EPEA: APIRILAREN 24rarte

"TOKI ONA"
Institutua
BERA



Informazioa:

- Tfnoa. (948) 630-411
- Faxa. (948) 630-411
- e-mail : ies.bera@cfnavarra.es